Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2000ko abenduaren 22a • I. urtea

4. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

"Ehizan konpenetrazio handia behar da nagusiaren eta txakurraren artean eta baita zorte apur bat ere"

JAVIER LARRAÑAGA /10

Goienka2a
Loquillo y Trogloditas taldea zuzenean Bergaran

ELKARRIZKETA
Pello Zabala, 'Naturaren mintzoa' liburuaren gainean /9

ASTEKO GAIA
Herrietako dendari elkarteak, Gabonetarako gertu /3

HERRIZ HERRI
Aretxabaletako zinema berriaren proiektua atzeratu egin da /5

EZTABAIDA: *Gabonetako kaleko argiak: larregiko gastua?* /7

Eguen goizen Elgetako Udalean egindako aurkezpena.

Juan San Martinek toponomastikako liburua aurkeztu du Elgetan

Juan San Martin euskaltzain osoak idatzitako *Eibar eta Elgetako toponomastika* liburua aurkeztu zen eguenean Elgetan. Han eta hemen lehendik publikatuak dituen lanak daude liburuan, nahiz eta ekarpen batzuen ondoren osatuago aterako den. Bilketa soila egiteaz gain, azterketarako bideak ere aipatzen ditu liburuan idazle eibartarrak. /4

"Liburuan jasotako hainbat daturen arabera, euskalkien artean ez dago alde handirik"

Juan San Martin

Coprecik Urrezko Q saria jaso du

Bailarako beste bi kooperatibak, Euskadiko Kutxak eta Fagorrek, zilarrezkoa jaso dute

Aretxabaletako Copreci enpresak Urrezko Q saria jaso zuen martitzenean Donostiako Kursaal jauregian. Joxe Migel Arregik, orain dela gutxi arte Copreciko gerentea izan denak, jaso zuen saria Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eskutik.

Euskalit ek, Kalitatearen Euskal Fundazioak, kudeaketan 500 puntutik gora lortu dituzten enpresak saritzen ditu Urrezko Q sariarekin. Aurreko ekitaldietan Irizar eta Gasnalsa saritu ditu.

Sari gisa jaso duten eskulturaren diseinu bereko 1.000 intsignia egingo dituzte, langileen artean banatzeko. Copreci kooperatibak etxetresna elektrikoak ekoiztu eta banatzen ditu.



Jose Iñazio Mujika eta Joxe Migel Arregi, saria eskuetan dutela.

Azbe®

"Segurtasuna bermatzen dugu, lasaitasuna eskaintzen dugu"

Basabe, 3 - 20550 ARETXABALETA
Tel: 943 712 929

APARKALEKUAK BERGARAN

Gaur zabaldu da aparkaleku publikoa

Gaur, egubakoitza, ireki dute Bergaran Ibargaraiko lur azpiko aparkaleku publikoa. Solairu bakarra eta 64 autorendako izango du tokia. Erdigunean sortzen den zirkulazio arazoa konpontze aldera eraiki du udalak. Doan izango da, harik eta udalak gestio bidea erabaki arte. Hala ere, irekiera behin-behinekoa da, eta gutxi gorabehera bi hilabetean egongo da aparkalekua egoera horretan. /4

GARAIA EGITASMOA

Datorren urtean abiaraziko da

Datorren urtarrilean abiaraziko da Garaia Berrikuntza Gunearen proiektua. Urtebetez ekimena gorpuzten igaro ondoren, martitzenean sinatu zuten Roman Sudupe Gipuzkoako diputatu nagusiak eta Antonio Cancelo MCCko lehendakariak. Donostian sinatu zuten eta hantxe izan ziren, besteak beste, Jabier Retegi Mondragon Unibertsitateko errektorea eta Xabier Zubizarreta Mondragoeko alkatea. /5

ZABORRAK

Ordutegi berezia Gabonetan

Zaborrak biltzeko ordutegia aldatu egingo da Gabonetan eta gauez egin beharrean eguerdi partean batuko dira zaborrak eskualdeko herri guztietan. Beraz, abenduaren 24an eta 31n zabor bilketa 14:00etan hasiko da, eta ez 22:00etan. Debagoieneko Mankomunitateak herritarrei jakinarazten die egun horietan zabor poltsak eguerdiko 13:00etatik 14:00ak bitartean atera beharko dituztela ohiko lekuetara.

Z U R U N O N D A R T Z A
Zelai Hotel ***
Ingurune paregabean,
Europako bio-itsas bistarik ederrenarekin,
atseden hartzeko toki bikaina.
Zelai
Hotel ★★★
ENPRESENTZAT
PREZIO BEREZIAK
Zumaia
T·A·L·A·S·O·T·E·R·A·P·I·A
H · O · T · E · L
R·E·S·T·A·U·R·A·N·T·E
Playa de Itzurun
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 51 00
Fax: 943 86 51 78
www.hotelzelai.com
COMPLEJO HOTELERO ITZURUN

Dendari elkartuak

Merkatari txikien lau elkarte bailaran

ENEKO AZKARATE

Erosketa ohiturak aldatu egin dira eta horrek zuzenean eragin die herrietako dendariei. Hipermerkatu edo merkataritzagune handiak eta hiriburuen eskaintza zabala dira dendari txikien lehia zuzena.

Euren interesak bermatzeko batu beharraz aspaldi jabetu ziren merkatari txikiak. Ibai Arte, Arrasate erdialdeko dendarien elkartea, da bailarako zaharrena. "Herriak hiltzen ari dira eta ez dakit konturatzen garen denda txikiek herriari ematen dioten bizitasunaz. Zapatu arratsalde batean denda guztietako argiak itzaltzekotan izan ginen behin", diosku Mertxe Trojaola Ibai Arteko lehendakariak. Elkarterik berriena Aretxabaletako Aretxarte da, aurtengo uztailean sortua. Elkarteko buru Bikene Zubiak esan digunez, "dendari guztioi eragiten digun arazoei aurre egiteko batu gara: Jaurlaritzak eskaintzen dituen ikastaroak, laguntzak-eta elkarrekin bideratzeko, grebaren bat antolatzen denean guztiek modu berean erantzuteko, udalari eskaera edo poposamen bateratuak egiteko..., praktikoak izan nahi dugu".

Dendarien beharrei erantzuteaz gain, herritarrei zuzendutako era askotako ekimenak ere bultzatzen dituzte bailarako dendarien elkarteek: jaietan lagundu, erakusketak antolatu, oroigarriak argitaratu... Bergarako Bedelkarrek, esaterako, elastikoak, pitxarrak, platerak eta postalak kaleratu ditu aurten. "Udalak turismo bulegoa zabaldu zuenetik, gero eta jende gehiago dator herria bisitatzera eta era honetako oroigarriak herria bultzatzeko baliagarriak dira", diosku Bedelkarreko lehendakari Xabier Mujikak.

Bailarako lau elkarteetako ordezkariak askotan egiten dituzte bilerak. "Zabor bilketa, esaterako, Mankomunitateak egiten du eta arazo honek debagoiendar guztioi eragiten digu. Orain dela gutxi papera eta kartoia batzeko dendariontzako zerbitzua abiatu du Mankomunitateak, denden ondoan, modu erosoan, kartoia lagatzeko. Kristalarekin ere gauza bera egin nahi da", esan digu Oñatiko Txanda elkarteko presidente Anton Garaik.

Dendari txikien lehia zuzena hiriburuak eta merkataritzagune handiak direla esan dugu. Baina, bailarako herrien artean lehiarik badago?

Dendarien elkarteko ordezkarien ustez, ez. Hala ere, denek aitortzen dute Bergarara eta, bereziki, Arrasatera gainerako herrietatik jende dezente joaten dela erostera. "Arrasate Leintzeko hiriburua da eta inguruko herrietatik ez ezik Elorriotik eta Durangotik ere etortzen dira. Gure etsaia ez da albokoa, Gasteiz eta Bilbo baizik", diosku Mertxe Trojaolak.

Udalei laguntza handiagoa eskatzen diete bailarako dendariek: kalea txukun eta ondo argiztatuta edukiz, behar diren zerbitzuak bultzatuz, oinezkoendako gune gehiago egokituz...



ARETXABALETA. Bailarako merkatari txikien artean, berriena da Aretxarte. Aurtengo uztailean sortu zen. Gaur egun 40 bazkide ditu, gehienak dendariak, nahiz eta janari dendak eta zerbitzu alorreko batzuk ere batu. Aretxabaletako merkatari txikien %40 gutxi gorabehera daude Aretxarten. Tabernaririk, eta oro har, ostalaririk, ez dago. Bikene Zubia da elkarteko burua.

OÑATI. Txandan, hau da, Txantxiku Dendarixen Altartian, batzen dira Oñatiko dendari eta merkatariak. 1996an sortu zen eta Anton Garai da lehendakaria. Gaur egun 100 bazkide inguru ditu. Gehienak dendariak, baina zerbitzuetako beste hainbat ere. Ostalaritzakoak ere batu nahi dituzte elkartean eta, horretarako, bazkide kanpaina hasiko dute urte hasieran.

BERGARA. Bergarako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteko (Bedelkar) lehendakaria Xabier Mujika da. 1993an sortu zen eta gaur egun 130 bazkide ditu. Oraingoa elkartearen laugarren lehendakaria da. Aurretik, Rafa Herran, Elsa Rodriguez eta Julen Narbaiza izan dira. Dinamizatzaile lanak Beatriz Beistegik egiten ditu.

ARRASATE. Mertxe Trojaola da Ibai Arte, Arrasateko erdialdeko dendarien elkarteko burua. 1992an sortu zen elkartea eta gaur egun 90 bazkide ditu, erdialdeko dendarien %80 inguru. 5.000 pezetako kuota ordaintzen du bazkide bakoitzak hiru hilabetean behin. Epe laburrera, erdialdekoak ez ezik Arrasateko gainerako auzoetako dendariak ere batzea da Ibai Artekoen helburua.

Gabonetako eskaintzak

Gabonetako egunak, dendari gehienendako, urteko onenak dira. Sasoi honetan beste batzuetan baino gehiago saltzen dute, dendak ordu gehiagoan izaten dituzte zabalik eta lan gehiago izaten dute.

Bestalde, Gabonetako publizitate eta promozio kanpaina bereziak egiten dituzte. Bergara, Oñati eta Aretxabaletako dendarien elkarteek zozketak egingo dituzte Gabonen ondoren. Bergarako Bedelkarrek 100.000 pezetako hiru sari zozkatuko ditu urtarrilaren 8an. Oñatiko Txandak, ostera, bost sari zozkatuko ditu urtarrilaren 10ean, bakoitza 100.000 pezetakoa. Aretxartek, azkenik, Erregetako loterian jokatzeko txartelak banatzen ditu. Zozketarako txartelak bezeroen artean banatzen dituzte erosketak egitearren.

Arrasateko Ibai Artekoek aurten ez dute zozketa berezirik antolatu. Nahiago izan dute beste era bateko ekimenak bultzatu. "San Migeletan hasi eta abenduaren 29a bitartean astero kultura ekitaldiren bat antolatu dugu. Uste dugu era honetan kaleko giroa piztu egiten dela, eta jasotako erantzunagatik, esperientzia positiboa izan da", esan digu Ibai Arteko Mertxe Trojaolak.

BERGARA | PARKING PUBLIKO BERRIA

Gaur ireki dute Ibargarai kaleko lurrazpiko aparkaleku publikoa

Oraingoz doan izango da, Udalak gestio bidea erabaki arte

GAMIZA REPORTEGOA

Gaur goizean ireki dute Ibargarai kaleko aparkaleku publikoa. 64 toki ditu, eta solairu bakarra. Erdigunean sortzen den zirkulazio arazoari irtenbidea emateko eraiki du udalak.

Lurrazpiko aparkalekuetan 64 autorentzako tokia izango da.

Guztiz bukatuta dagoen arren, udalak ez daki, oraindik, aparkalekuaren gestio bidea zein izango den. Hala ere, Gabonetarako, behintzat, irekitzea erabaki du, batez ere, egun hauetan erdigunean sortzen diren zirkulazio arazoak eraginda. Oraingoz, ordenantza onartu eta gestio bide hori erabaki arte, aparkalekua doakoa izango da. Hala ere, behin-behinerako ireki da, eta gutxi gorabehera, bi hilabetez egongo da aparkalekua baldintza horiekin.

Aparkalekua 24 orduz egongo da irekita. Goizeko 8etatik gaueko 10ak arte ezin izango da bi ordu baino gehiagoan autoa aparkalekuan utzi. Udaltzainek ziurtatuko dute neurri hori betetzen den edo ez. Baina, gaueko 10etatik aurrera ez da denbora mugarik egongo, eta goizeko 8ak arte autoa parkingean uzteko aukera egongo da.

IGERILEKUAK, ITXITA

Joan den egubakoitzetik daude itxita udal igerilekuak, 14:30ak aldera sabaian dagoen berogailuaren hodi zati bat, hiru kilokoa, erori zen unetik. Hodi zatia erori zenean, bi lagun ari ziren igerian. Hala ere, ez da zauriturik egon. Igerilekuetako arduradunek berehala itxi zuten igerilekua eta oraindik horrela jarraitzen dute. Mugarik gabe, gainera, igerilekuko arduradunek ezin dute eta ziurtatu berogailuaren egoera.

Gauzak horrela, enpresa bat kontratatu du udalak, berogailuaren instalazioa aztertu eta egoeraren txostena egiteko. Azterketak luze joko duela azaldu dute igerilekuetako arduradunek. Noiz irekiko diren e[illegible] ezin dute esan. Urte berrirako karnetik ez da egingo oraindik.

ANTZUOLA | BERREGOKITZE PLANA

Alde zaharra konpontzeko plan berezia abian da

Iñaki Berasategi arkitektu bergararrak egingo du

AINTZANE IRIZAR

Eusko Jaurlaritzak bederatzi milioi eman dizkio Antzuolako Udalari, alde zaharra berregokitzeko plan berezia garatu dezan. Diru-laguntza hau, Eusko Jaurlaritzak, herrietako kasko historikoa zaintzeko helburuarekin, aspalditik markatzen duen filosofiaren barruan kokatzen da. Udalak Iñaki Berasategi arkitekto bergararrari eman dio plan hori egiteko ardura.

Orain garatzen ari diren dokumentuaren aurrerapena 80. hamarkadan egin zuten. Baina, Valen Moñux udaleko aparejadoreak azaldu digunez, "garai hartan alde batera laga genuen plana, errekaren desbideraketaren arazoa konpondu gabe zegoelako, eta horrek eragina zuelako planarengan".

Planaren garapenari orain heldu bazaio, erreka plaza ostetik pasatuko dela dagoeneko erabakita dagoelako izan da.

Eusko Jaurlaritzak berregokitzapen plana egiteko irizpide batzuk ematen ditu, eta horietan oinarrituta egin beharko da plan urbanistiko berezia. Oso plan zehatza izango da; hau da, etxez etxe egingo da azterketa, eta bakoitzean egin daitezkeen egokitzapen eta konpoketak zehaztuko ditu. Baita egin ezin daitezkeenak ere.

Behin plan berezia garatutakoan, etxe bakoitzak bere proiektua egiteko aukera izango du. Proiektu horiek guztiak egiteko baimenak aurrez egindako plan berezi horretan oinarrituta emango ditu edo ez udalak.

Zertzelada

Behin plan berezia garatutakoan, etxe bakoitzak bere proiektua aurkezteko aukera izango du; plan berezian oinarrituko da Udala baimenak emateko.

BARKERO OMENDUKO DUTE

Xabier Barkero antzuolar gaztea hil zela urtebete bete denean, omenaldia egingo zaio herrian. Antzuola Kirol Elkarteak "Xabier Barkero" I. Futbol Torneoa antolatu du, gaztearen oroimenez. Estalan eta frontoian jokatuko dira partiduak. Torneoaz gain, kirolari buruzko mahainguru bat ere izango da abenduaren 28an, arratsaldeko 7etan, zine aretoan.

ELGETA | LIBURUAREN AURKEZPENA

Juan San Martin/ Onomastika batzordeko kidea

"Hainbat daturen arabera, euskalkien artean ez dago alde handirik"

IBAN ARANTZABAL

Onomastika batzordeko kide Juan San Martinek Euskaltzaindiaren "Onomasticos Vasconiae" bildumako 21. liburua atera du. Liburuaren aurkezpenean, Elgetako eta Eibarko alkateez gain, Onomastika batzordeko buru Enrike Knörr ere izan zen.

Liburua bi zatitan dago banatua. Zer dakar Eibarko atalak?

Eibar botanika aldetik aztertu dut, euskarazko izena, gaztelaniazkoa eta teknikoa emanda. Dagoeneko galduta dauden hainbat berba aurkitu ditut. Erdi Aroko dokumentuetan agertzen denarekin ere egin dut kapitulu bat, eta baita zita kronologikoak dituzten Eibarko baserri izenekin ere. Eibarko atala amaitzeko, hidronimia ere jorratzen dut,

Juan San Martin.

Eibarren, Elgetan ez bezala, erreken izenek joku handia ematen dute eta. Elgeta partetik Eibarrera sartzen den erreka Ibur deitzen da. Goierrin Ibia dago eta Baztanen ere bada Ibur. Horrelako datuak ematen ditut elkarrengandik hurbil egon garela baieztatzeko.

Orduan Mitxelenak esan zuen moduan, euskalkien artean ez dago alde handirik.

Halaxe da, oraintxe eman dizkizudan datuak eta liburuan esaten diren beste hainbatek hori pentsarazten digute.

Eta Elgetako atalean zer aukituko du irakurleak?

Eserako, irakurlea konturatuko da Angiozar ez dela San Migel Aingeruarekin zerikusia duen berba. Angio: Angiozarreko eliza San Migel da, eta edadetu askok Aingeru zahar dela jaso arren, angio hitzak *territorioa* esan nahi du. Elorrion, esaterako, angio auzoa dago. Angioak larrerako lurrak dira eta horrelakoak Gipuzkoa osoan, Hondarribian eta Elgetan, zeuden. Elgetako ermita eta elizei dagozkien lehen datuak 1600. urte inguruan agertzen dira, eta hagionimiari dagozkion arte eta margolanak XIV. mendekoak dira.

ARETXABALETA | ZINEMA ARETO BERRIA

Atzeratu egingo dira Zaraia zinemaren konponketa lanak

Proiektuak zalantzak sortu ditu Udalean

MIRARI ALTUBE

Aretxabaletako Zaraia zinemak, jadanik, bi urte inguru daramatza itxita. Denbora luze honetan, ez da filmerik eskaini eta beste hainbat ekintza ere ezin izan dira gauzatu: antzerkiak, kontzertuak, abesbatzaren emanaldiak... Udalak uztailean egindako osoko bilkuran, Alberto Sanz arkitekto bilbotarrari egotzi zion eraikinaren konponketa-proiektua egiteko ardura, eta 9 milioi onartu ziren horretarako.

UDALBATZAK ZALANTZA UGARI

Arkitektoari egin zitzaion eskaeraren arabera, Aretxabaletako zinema areto berriak 450 lagunentzako tokia izan beharko luke, guztiak eserita.

Filmak emateaz gain, antzerki ikuskizunak egiteko aukera egongo litzateke, eta kultur etxeko bulegoak ere, orain bezala, bertan egongo lirateke. Aurkeztutako oinarrizko lanean, ordea, erabilera anitzeko aretoa aurreikusi da, baina kultur etxeak ez luke tokirik izango. Alberto Sanzen proposamenak, zalantza ugari sortu zituen orain hilabete inguru Gobernu Batzordean aurkeztu zenean, eta atzeratu egin zen lehenengo zirriborro horren onarpena.

AURTEN EZ DA PROIEKTUA ONARTUKO

Zalantza teknikoez gain, badirudi diru kontua ere ez dagoela oso argi udalbatza osatzen dutenen artean, izan ere 300 milioitik gora beharko lirateke arkitekto bilbotarrak aurkeztutako proiektua gauzatzeko, hasiera batean aurreikusitakoa baino askoz gehiago.

Zalantza hauek guztiak argitzeko hobeto aztertu nahi da proiektua udalean, eta urte honetan behintzat ez da erabakirik hartuko. Hirigintza eta kultura zinegotzi eta teknikoek osatzen duten batzordeak datorren urtean erabakiko du zer egin. Eztabaida asko luza daiteke, eta ondorioz, zinemaren konponketa lanak ere bai.

ARRASATE GARAIA EGITASMOA

Datozen zortzi urteetan 7.700 milioi pezeta inbertituko dira Garaian

AIA MADERA

Garaia Berrikuntza Gunea kudatzeko elkartea eratu da aste honetan. Martitzenean egin zen aurkezpen ofiziala Gipuzkoako Foru Aldundian, eta datorren eguartenean eratuko da, behin betiko, Mondragoen.

Aurkezpenean Roman Sudupe ahaldun nagusia, Javier Retegi Mondragon Unibertsitateko errektorea, Antonio Cancelo MCCko presidentea eta Xabier Zubizarreta Arrasateko alkatea izan ziren, besteak beste. Hain justu, MCC, Eusko Jaurlaritza, Diputazioa eta Arrasateko Udala izango dira fundazio berriko kideak.

Martitzenean aurkeztu zen egitasmoa Diputazioan.

3.300 MILIOI

Talde horrek 3.300 milioi pezeta izango ditu Garaia egitasmoari ekiteko. "[illegible]30 (990 milioi) Gasteizko Gobernuak jarriko du, beste horrenbeste Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta MCCk. "[illegible]40 (1.320 milioi).

Hala ere, guztira 7.700 milioi pezetako inbertsioa aurrez ikusi du LKSk, Garaia proiektuaren egileak, alegia. Horietatik 4.795 milioi lursailak egiteko, kalteak ordaintzeko eta hirigintza lanetarako, eta 2.912 milioi eraikinak egiteko.

IKERKETAGUNEA

Garaia Berrikuntza Gunea ikerketarako izango da, ez produkziorako. Helburua da ikerketa enpresen, unibertsitatearen eta gainerako enpresen premiak uztartzea.

Ikerkuntzarako 20 zentro eraikiko dira eta hor 500 ikertzaile ariko dira lanean, enpresen premiei begira. Goi mailako 1.250 lanpostu sortuko ditu, gehienak ikertzaileak, aholkulariak eta irakasleak.

Garaia guneak korporazio osoan eragingo du, bai unibertsitatean, eta baita ikerketa edo produkzioko enpresatan ere.

Uribarri auzoan eraikiko dute, Olandixoko maldaren parean, MCC, Euskadiko Kutxa eta Lagun Aroren egoitzak aurrez aurre dituela. Horrez gain, gertu izango ditu Ikerlan eta Mondragon Unibertsitatea ere.

Dagoeneko, hainbat pauso eman dira lursailak erosteko, eta Trefasa enpresa erosteko ere bideak zabaldu dira.

Garaia, zenbakitan

• Ikerketagunea Uribarrin.	492.150 m²
• Hasierako inbertsioa:	3.300 milioi pezeta
• Inbertsioa:	7.700 milioi pezeta
• Ikerkuntzarako guneak:	20 bat (zortzi urtean)
• Ikerlariak	500
• Langileak:	1.500
• Goi mailako lanpostuak	1.250

ESKORIATZA

200 milioi gehiago datorren urteko aurrekontuan

ÍÑIGO BIAIN

Eskoriatzako Udalak aurkeztu du dagoeneko 2001erako aurrekontua. Orain, hilaren 26a arteko epea zabalduko da alegazioak jasotzeko. Bi egun geroago, hilaren 28an, Inuzente Eguna, osoko bilkura izango da. Egun horretan onartu edo atzera botako dira 2001erako aurrekontuak.

Datorren urterako aurrekontua, aurtengoaren parean jarriz gero, 200 milioi pasatxotan handitu da, 582 milioitik 788 milioira, alegia. Aurrekontuen handitze hau Eskoriatzak datorren urtean jasango dituen hainbat lanek ekarri dute, besteak beste, Teleskoko kable sarea aldatu eta berritzea (25 milioi pezeta), udaletxea eraberritzea (75 milioi), gerora Eskoriatzako museo eskola egongo den Ibarraundi baserriaren eraberritze lanak (20 milioi) eta Santa Ana eta Olazar auzoen urbanizazioa (guztira, 90 milioi batzen dituena).

Badira beste hainbat lan ere, baina aurrekontuari begiratuta, hauexek dira garrantzitsuenak. Urtea amaitu baino lehen udal aurrekontua onartuko da, beraz.

ARAMAIO UDAL AURREKONTUAK

Txikiagoa izango da datorren urteko udal aurrekontua

Guztira, 326 milioi pezetako aurrekontua

UBANE MADERA

326 milioi pezetako aurrekontua onartu zuen Aramaioko Udalak datorren urterako, aurtengoan baino 75 bat milioi pezeta gutxiago, hain zuzen. Osoko bilkuran izan ziren zazpi zinegotzietatik seik aldeko botoa eman zuten. EHko zinegotziak aurka bozkatu zuen eta ; edozelan ere, gehiengoz onartu ziren aurrekontuak.

MURRIZKETAK BATZORDE GEHIENETAN

Oro har, batzorde guztiek diru gutxiago jasoko dute datorren urtean. Diru murrizketa hori Hirigintza batzordeak igarriko du gehien. Izan ere, aurten baino 40 bat milioi gutxiago jasoko du. Gainera, aurrekontuaren kopurutik erdia baino gehiago (75 milioi) Kultura Etxearen zaharberritze lanak amaitzeko erabiliko da. Bestea auzoetara gasa eroateko eta bideak konpontzeko izango da, besteak beste.

Hirigintzarekin batera, Euskara eta Hezkuntza batzordeak eta Zerbitzuek ere igarriko dute murrizketa datorren urteko jardunean.

KULTURA ETA INGURUMENA BATZORDEETAN DIRU GEHIAGO

Ez, ordea, Mendi eta Ingurumen eta Kultura batzordeek, bi horiek dira-eta aurten baino diru gehiago jasoko dutenak.

Hain justu, Mendi eta Ingurumen batzordeak Arangio mendian zuhaitzak landatzeko asmoa du eta horretan gastatuko du dagokion kopuruaren erdia baino gehiago (12'5 milioi pezeta). Kultura batzordeak, berriz, Kultura Etxerako altzairuetan eta kudeaketan inbertituko du aurrekontuaren zati handi bat (13 milioi).

Horrela, dirua banatuta eta datorren urteko eginbeharrak zehaztuta amaituko dute urtea Aramaion.

Diru banaketa

Milioiak	Batzordea
127	Hirigintza
11,6	Euskara eta Hezk.
30	Kultura
22	Ingurumena
110	Ogasuna
22,5	Zerbitzuak

OÑATI BASOZAINTZA

Basozaintza bulego berria zabalduko da datorren urtarrilean

Udaletxean jarriko da, eta eguen eta egubakoitzetan egongo da irekita

AINTZANE IRIZAR

Aste honetan bertan eman dio erabakiaren berri Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak Oñatiko Udalari. Bulegoa Oñatiko udaletxean jarriko da.

Erabakiaren berri izan bezain pronto, bulegoa egokitzeari ekin dio Oñatiko udalak. Beharrezko material guztia eskatu dute dagoeneko: mahaiak, ordenadoreak... Bulego hau Bergarako Nekazaritza Ganbararekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin konektatuta egongo da sare bitartez.

Astean bi egunetan egongo da zabalik: eguenetan basozaina egongo da bertan; egubakoitzetan, berriz, administraria. Basozaintzarekin lotutako zerbitzu guztiak emango dira: pinuak botatzeko baimenak, baita sua egiteko baimenak ere; landaketa, garbiketa edo bestelakoetarako diru-laguntzak eskatzeko ere bertara jo beharko da.

Duela urte eta erdi inguru itxi zuten basozaintza bulegoa Oñatin. Ordutik, Oñatiko baserritarrek Bergarako Nekazaritza Ganbarara jo behar izan dute edozein tramite egin ahal izateko. Oñatiko bulegoa itxi zutenean baserritar asko izan ziren euren desadostasuna erakutsi zutenak.

Oñati da Gipuzkoan pinu gehien duen herria, eta baita baserri gehien dituena ere.

Kontuan hartu behar da Oñati dela Gipuzkoako herririk handiena 108 m2rekin. Horrek nekazal jarduera garrantzitsua duen herria dela esan nahi du. Oñati da, esaterako, pinu gehien duen herria Gipuzkoan, eta baita baserri kopuru handiena duena ere: 400 baserritik gora dago herrian. Beraz, bulego hau berriro herrian jartzeak onura handia ekarriko die Oñatiko baserritarrei.

TXANDAREN ZOZKETA

Txandak, Oñatiko dendarien elkarteak, urtero bezala, Gabonetako zozketa antolatu du. Elkarte honetako kide diren dendetan, txartelak banatzen dihardute euren bezeroen artean. Guztira 500.000 pezeta banatuko dira: 100.000 pezetako bost sari, hain zuzen ere. Urtarrilaren 10ean izango da zozketa.

Zabalik

BEÑARDO KORTABARRIA

Kaixo, Olentzero!

Hemendik eta domekara badakit ez duzula astirik izango. Ez da zure errua, berandu neu ibili naiz eta. Horregatik hurrengo urterako lagatzen baduzu ere, ez naiz haserretuko. Jendearendako jatortasun eta sanotasun apur bat eskatu nahi dizut, eta itxurakeria gutxiago. Hau ez da gure mutiko-sasoian ezagutu nuen gizartea, ez eta orduan ezagutu nuen jende-klasea ere; ez ginen horrelakoak.

Azken haserrealdia zure imitatzaile baten eskutik etorri zait. Egia esan, gizarajoak ez zeukan batere errurik, bere lana —beretzat gutxik nahiko luketena seguruen— betetzen ari zen, besterik ez. Denda baten aurrean zegoen, bere aurretik pasatzen zirenei gatzik gabeko "kaixo"-ak eskainiz. Gorriz jantzi eta eskuan kanpaitxoa jarri baliote bat-batean Olentzero Papa Noel bihurtuta ikusiko nukeen. Baina noiz ikusi da horrelakorik, gure ikazkina dendako erreklamo kaletar tristea bihurtuta? Joan den astean eta, zorionez, bailara honetan ez, Irunen gertatu zen.

Uste dut hona ere, berandu baino lehen, iritsiko dela, beste gauza batzuk iritsi diren moduan: itxurakeria hutsagatik edo nabarmentzeagatik edozein tokitan, ordutan eta egoeratan telefono mugikorretik berbetan aritzen den jendea, modako patinetea, arbitroa engainatzea beste helbururik ez duten futbolariak, beltzaran egoteagatik urteko edozein sasoitan milaka duro gastatzen dituzten eder usteko horiek...

Datorren urtean jatorrago bagina, txikitoa gustura ordainduko nizuke.

Oharra: Gure artean ez daudenei, besterik ezean, goraintziak eraman.

BEÑARDO KORTABARRIA

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@topagunea.com



Presoak borrokan

Kaixo, Joxe Miel Gaztelu Otxandorena preso politiko bergararra naiz. Jakingo duzuenez, Alcala Mecoko presondegian nago sakabanaketaren ondorioz. Eskutitz hau zuengana zuzendu dut, gaur egun espetxe honetan euskal preso politikook bizi dugun egoeraren berri emateko eta, era berean, ditugun arazoak zuek ere, ahal duzuen neurrian, konpontzen laguntzeko. Eta lehenengo pausoa hemengo errealitatea jakinaraztea da.

Asko ez dela, presondegi honetako zuzendaritzak hemen gauden euskal preso politikoekin hitzartu zuen inoiz ez zela egongo gutariko inor bakarrik presondegian. Hitzarmenaren esanahia erabat ulergarria zen: euskal preso politikoon segurtasuna eta gure arteko harremanak presondegi barruan bermatzea, gure ohiturak egunero-egunero aurrera eraman ahal izatea, alegia.

Baina, azkenaldian, espetxe honetako egoera apurka gogortzen ari da: izan behar genituzkeen eskubideak ukatzen zaizkigu. Horretaz gainera, zuzendaritzak gurekin zeukan hitzarmena orain dela pare bat hilabete hautsi zuen. Beraz, gaur egun euskal presook bizi dugun sakabanaketari gehituz, presondegi honetan ere sakabanatzea erabaki zuen hemengo zuzendaritzak.

Gaur egun, beste kide batzuk ere egoera hori jasan ondoren, Juan Mari Fullaondo eta Dabid Gramont bakarka daude (Juan Mari laugarren moduloan eta Dabid hirugarrenean). Hori dela eta, hemen gauden euskal preso politikook hitz egite eta konpontze saiakerak egin eta gero, ezetza jaso ondoren, patio-greba hasi genuen urriaren 22an. Hau da, egun osoan gure ziegatan txapaturik gelditzen gara. Txapeoan hasi ginenetik 55 egun pasatu dira eta arazoa ez dute konpondu. Juan Mari eta Dabid beraien moduluetan bakarka jarraitzen dute.

Horregatik, bada, zuengana zuzentzen naiz: argi dago guk jarraituko dugula borrokan, egoera konpondu arte, baina laguntza ere behar dugu. Gutunaren asmoa da bizi dugun arazoaz zuek jabetzea eta, ondorioz, zuek erabakitzea herritar bezala zer egin dezakezuen. Beraz, zuen eskutan dago.

JOXE MIEL GAZTELU OTXANDORENA
Alkala

Hausnarketa

Egun gutxi dela hil zen Aita Villasante Arantzazuko Santutegian. Bere heriotzaren ondoren jakin dut euskararen alde egin zuen lan ikaragarria. Denek maite zuten. Hileta egunean hainbat elkarrizketa entzun nituen, eta horietako batean Mari Karmen Garmendiak, beste gauza askoren artean, zera esan zuen, Aita Villasante pobrezian bizi izan zela.

Galdera: Arantzazuko santutegiak hormigoi bikoitzeko paretak ditu (neguan, beraz, primeran), berogailua, *topera*; janaria eta edaria, nahi beste; idazmahai erosoa, argi natural eta artifizialarekin, *topera* noski; logela, komuna barne; garbiketa zerbitzua.

Hori da "Pobrezian" bizitzea?

MARI KONTXI GARAIONDO
Bergara

Bizi izan juat

Akonplejatu samar ibili naiz azken aldi honetan. Ibarretxek eta EAJk lehendakaritza gal zezakeela-eta, arraro samar ikusten nuen neure burua, ez nuelako inolako larritasunik sentitzen. Noizean behin *Sorginen Laratza* ere ikusten nuen eta Klaudio Landa eta Xabier (Perez) Euzkitzeren txisteekin ere ez nuen barre egiterik lortzen. *Bertatik Bertara* ETBko programan saien eta Espainiako printzearena ere ikusi nuen, baina ez zidan barrerik eragiten.

Zalantzati nengoen 'euskal sena' delakoa galduta euki nezakeela eta. Euskaraz ekoizten diren produktu kultural ofizialekin ezin barrerik egin. Klaudio Landari ematen dizkioten txalo zaparradak ezin ulertu.

Baina, zorionez, bada munduan niri gustatzen zaidan umorea galdu ez duen mondragoetarrik. Joan zen osteguncan, liburu eder bat aurkeztu zuten Monterronen: *Bizi izan juat*. Hori liburuori Josemari Velez de Mendizabalek prestatu du, Jesus Trincadoren, Montevideon bizi den mondragoetarraren, karetatik ateratako materialekin. Gerra Zibilaren aurreko Arrasateri egindako errepaso interesgarri bat da. Gutunak erdaraz idatzita daude, baina pasarte batzuetan Jesus Trincado euskararra pasatzen da, eta hor ematen digu ia galduta dagoen, baina oraindik bizirik dirauen, 'mundrautarren sanidadie': Krisis sakristauak Don Lorenzo abadearekin apustua galdu zuenean, baserri bateko aitajauna hilzorian zegoenean, hiletarako hilldako txahalaren katilu bat salda eman ziotenekoa edo eskopeta batekin Arrasateko zeruan azaldu zen lehenengo hegazkinari teilatutik tiro egin behar zion atsoarena, edo Doña Manuela maistrari mailu batekin haginak bota behar zizkion Bixente Bediaren pasartea, edo eskolako komunean, norbaitek gorputzekoak zulotik kanpora egin zuenean, maisuak botatakoa: 'Zeinek jaukek hemen atzeko zulue oker?'.

Eta horrela, beste pasarte mordo bat, emakume ipurzabal bati itsatsitako kartoia, adibidez: 'Se alquila el cuarto trasero', jartzen zuena. Ez da, noski, umore liburu bat soilik, informazio ugari eta tarte mingotsak ere badakarzki. Liburuan estilo ironiko fin bat atzematen da. Jesus Trincadok berak eginiko marrazkiekin eta ondo aukeratutako argazkiekin hornituta dator liburua.

Euskarari dagokionez, zenbait esamolde berreskuratzeko balio diezazkigukeen ondorengo adibideak: Semeikotxo baten pupua eta txakur haundi baten trapua, ogixe koskara eraman, tontosurra jarri, auzoko beixa(k) esne geixau, urriñeko ederra baño inguruko eskasa obe, ugasabapekurik izan, sasilistrau, zapata txarra merkia be karu, upiñak (ipuinak), besartekara (despeditzeko besarkada baino askoz zehatzagoa).

Karta hau irakurtzeko pazientzia izan duzuenoi, liburua irakurtzeko gonbita egiten dizuet, nire lerro aspergarri hauek baino interesgarriagoa da eta. Barre, behintzat, egingo dituzue. Akabetako, eskerrak, Jesusi, Jose Mariri eta Arrasateko Udalari.

RAMON UGALDE
Arrasate

Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE

Eztabaida

Gabonak gainean ditugu. Familiakoekin elkartzeko, zorionak opatzeko, opariak egiteko..., eta dirua barra-barra gastatzeko sasoia da. Askorendako gehiegikerietarako sasoia. Gabonetan ohikoa izaten da jaiotzak, arbolak edo argi-apaingarriak jartzea.

Gure eskualdeko udalek, esaterako, bederatzi milioi pezeta inguru gastatuko dituzte aurtengo Gabonetan kaleak apaintzeko. Bergarako eta Oñatiko udalek gastatuko dute diru gehien, hiruna milioi, hain zuzen.

Gabonetan kalean jartzen diren argi apaingarriak: larregiko gastua?

Munduko baztertuentzat ardura gabeko erantzuna

JOSE MARI SARASUA
Munduko-fundazioko kidea

Arrasatek ez du izango, noski, Gabon jaietarako argi eta pitxi gehien, antzeko biztanle kopurua duten hiriekin alderatuta. Hala ere, ezin ukatu gehiegikerian jausten ari garela arlo honetan ere, besteen antzera. Jokaera honi desegokia deritzot arrazoi askorengatik. Hona hemen batzuk:

• Munduko baztertuen aldetik begiratuta (neurri handi batean gure erruz), ulertezina eta mingarria da. Zer janik, zer jantzirik eta non babesturik ez dutenen aurrean ardura gabeko erantzuna.

• Uste izatekoa da Gabonak datozelako jartzen dela hau guztia. Bada, kontraesan handia da. Gabonetako pertsonaia nagusia, eta bide batez, Gabonak ospatzeko arrazoia, Nazareteko Jesus da. Eta honen oinarrizko irakasgaia behartsuengana hurbiltzea da, xumetasuna, guztionganako maitasuna. Ez zituen gogoko gehiegikeriak eta handikeriak.

• Lehengoaz gain, giro argitsu artifizial honek kontsumora bultzatzen gaitu lehengoaz gain, eta gure helburu nagusia, egun hauetan, guztia goi mailan egitea da: opariak, janariak, ospakizunak, ... maitasuna eta elkartasuna ahaztuta.

• Beste behin, giro honek botere ekonomikoen sareetan erortzen laguntzen digu eta eurak bakarrik dira irabazle, gu txotxongiloen antzera erabiliz.

Alderdi askotatik eraldatzen ari zaigu Arrasate, eta beste hiri askoren ereduak jarraitzen ditu finki. Uste dut askoz hobea litzatekeela herri handi honek jatorrizko giza baloreei eustea. Hau da: elkartasuna, arlo desberdinetako ardura, xumetasuna, austeritatea. Guretzat ongarri, eta besteentzat eredu.

Baliabideak ondo erabiltzea da kontua

INMA MIGEL
Aretxabaletako Udaleko Kultura teknikaria

Gabonak heldu dira. Gure herriak kolorez eta argiz bete dira. Hau poza!

Eta zeini ez zaio gustatzen bere herrian argiak eta apaingarriak ikustea?

Batzuei dirua alferrik botatzea dela iruditko zaie, baina gehienetan ez da diru kontua izaten, irudimen kontua baizik.

Aurreko urteetan Aretxabaletan milioi bat pezeta gastatu izan dugu Gabon giroa sortu nahian, 600.000 pezeta inguru argiak alokatzeko. Aurtengo aurrekontua berdintsua da, baina hainbeste argi alokatu beharrean, erosi egin ditugu. Argi hauek herriko hainbat lekutan landatuta dauden zazpi arbola apaintzeko erabili ditugu, eta aurrerantzean ere horretan jarraitzeko asmoa daukagu.

Lehenengo begirada kolpean kostua handia dela iruditu arren, biztanleko 150 pezeta besterik ez da gastatu. Beste edozein ekintza antolatzerakoan egiten den gastua handiagoa da proportzionalki. Apaingarriak jartzerakoan herri guztia kontuan hartu nahi izan dugu eta argiak auzoetan ere jarri ditugu (Portasolen, Lausitan, Santakurtzen, Erdialdean). Aurtengoan herria kolorez janzten saiatu gara eta herritarrak pozik daude. Ekimenak izan duen harrera ikusita, politikoak zein kultura teknikariok pozik gaude.

Gastuak gastu, herria bera alaitasunez bete dugu; ea herritar guztiok poz-pozik pasatzen ditugun hurrengo egunak!

Dirua ondo gastatu

Gabonetako argiak, larregiko gastua? Oro har, kaleak Gabonetako apaingarriz jartzea ondo iruditzen zait. Uste dut, ohitura bihurtu dela, eta polita da, arbola dela, jaiotza dela edo argitxoak direla. Bestalde, sasoi honetan jende asko ibiltzen da kalean eta kaleok txukun egotea ondo ikusten dut. Dendariek, esaterako, apaingarriz janzten dituzte dendetako aurrealdeak eta oso txukun izaten dituzte.

Baina, kontua da dirua zelan gastatzen den. Udal batzuetan hiru milioi gastatatuko dituztela entzun dut. Uste dut, ez dagoela horrenbeste gastatu beharrik; ondo antolatzea eta irudimena erabiltzea inportanteagoa da. Eta Gabonetako argiak jartzeko horrenbeste diru gastatu beharrean, esaterako, kultura ekitaldietarako edo beste edozein ekimenetarako gordetzea hobe da.

Mikel Ugarte
Oñati

GATAZKEN ASTEKO EZTABAIDAGAIA — **Iritzia emateko: berrigara@topagunea.com**

Merezi du beherapenetan erostea?

Gora eta Behera

GATAZKARI BURUZ EZTABAIDAN

Eskoriatzako parrokiak bultzatuta, bizi dugun gatazkaren aurrean proposamenak aurkeztu eta guztion artean berba egiteko, udaleko hainbat ordezkarirekin aurrekoan antolatutako mahai inguruaa. Bestalde, Bartzelonako Gabon zahar berezian Europa ko 80.000 gazte inguru elkartuko gara, tartean bailarako hiru lagun ere.

ASKOREN ARDURAGABEKERIA

Gure herrietan edozein jarduera kultural, solidario edo alternatibo egiteko, herritarren arduragabekeria. Herriak bizirik eta erne irauteko, jende askori eskatuko nioke ardura ezatik parte hartzera pásatzea. Zuzengabekeriaren aurrean, konformismoa eta ezkortasuna gainditzea falta zaigu, hau da, imajinazioa eta adorea.

XABIER GOMEZ
Eskoriatzako parrokoa

Koplak

Gabonetan bai ondo!

Gabonetan sartuta
ederrak gaude gu,
ilusioa bera
mozorrotu dugu.

Familian ei dago
orain armonia,
akabo da urteko
bizi agonia.

Denporaren kordela
zifrakin izoztu,
danok jan eta edan
ta batera poztu.

Arbolapean dago
gure Jesusito,
opari kaxek dute
bapatean ito.

Norbere sinismenaz
ala behartuak,
hamaika gezur dugu
askok onartuak.

JON INAKI IZARZELAIA

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA: Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA: Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
SAILETAKO ARDURADUNAK: Marijo Deogracias (Kultura, Denborapasa, Telebista), Edu Mendibil (Kirola, Non Zer), Aintzane Irizar (Berri-Zakua), Goio Arana (Disenua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PUBLIZITATEA: Uxue Zabaleta, Arantzazu Lagunilla, Nerea Zallo
ADMINISTRAZIOA: Agurtzane Gaintzarain
PRODUKZIOA: Iban Arantzabal
HARPIDETZA ETA BANAKETA: Aitziber Langaran
MAKETAZIOA: Goio Arana, Maddi Trutxuelo, Iñaki Iturbe
TESTUEN ZUZENKETA: Sergio Azkarate

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

JAIOTAKOAK

Alexander Manuel Benitez Malvar
Abenduaren 9an, Aretxabaletan.

Maialen Aguilar Gutierrez
Abenduaren 10ean, Arrasaten.

Andoni Calbano Osinaga
Abenduaren 11n, Bergaran.

Mikel Miner Diez
Abenduaren 13an, Bergaran.

Josu Gartzia Isasi
Abenduaren 13an, Oñatin.

Eli Maidagan Murgiondo
Abenduaren 14an, Arrasaten.

Unai Sebastian Fernandez
Abenduaren 14an, Arrasaten.

Andoni Valor Monterroso
Abenduaren 14an, Arrasaten.

Amaia Basterra De Santos
Abenduaren 14an, Bergaran.

Mariñe Gonzalez Barrutia
Abenduaren 16an, Bergaran.

Markel Bengoa Lana
Abenduaren 16an, Aretxabaletan.

HILDAKOAK

Doroteo Kortabarria Isasmendi
Oñatin, abenduaren 14an,
88 urte zituela.

Dorotea Benito Del Hoyo
Arrasaten, abenduaren 15ean,
82 urte zituela.

Maxima Idigoras Errasti
Aretxabaletan, abenduaren 16an,
91 urte zituela.

Mateo Gallego Ales
Aretxabaletan, abenduaren 18an,
85 urte zituela.

Jose Mari Iparragirre Alberdi
Antzuolan, abenduaren 18an,
71 urte zituela.

Ricardo Akizu Verduras
Eskoriatzan, abenduaren 18an,
59 urte zituela.

Andoni Valor mondragoetarra eta ama, **Rocio Monterroso.** Andoni abenduaren 14an jaio zen Mondragoeko ospitalean, eta 2,9 kilo pisatu zuen. **Agustin** da aita, mondragoetarra hori ere.

Unai Sebastian Fernandez mondragoetarra eta ama, **Maria Jesus.** Abenduaren 14an jaio zen Unai Mondragoen, eta 2,705 kilo pisatu zuen. **Ricardo** da aita, atxabaltarra.

Mariñe Gonzalez bergararra eta ama, **Begoña Barrutia**, bergararra hau ere. Aita **Juan Luis** da. Mariñe abenduaren 16an jaio zen Mondragoeko ospitalean, eta 3,650 kilo pisatu zuen.

Jorge Perez Martin eskoriatzarra eta ama, **Victoria.** Abenduaren 16an jaio zen Jorge, eta 3,650 kilo pisatu zuen. **Juan Jose** da aita, eskoriatzarra.

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez *Goienkaria*ren ordezkaritzetako batera.

BERGARAN, *Berrigara*ren egoitzan, Irizar jauregian, Barrenkalea, 33an

ARRASATEN, ARKOren egoitzan; Otalora Lizentziaduna, 31n.

ARETXABALETAN, *Aretxagazeta*ren egoitzan, Duranan.

Telefonoak:
943 76 92 71 (*Goienkaria*)
943 76 03 97 (*Berrigara*)
943 71 25 11 (ARKO)
943 79 86 21 (*Aretxagazeta*)

ALEX LABAIEN bergararra eta **MAITE TOLEDO** antzuolarra datorren hilaren 31n ezkonduko dira. Alex urtetan izan dugu Berrigarako testu-zuzentzailea. Ezkontza domeka iluntzean izango da Antzuolako Udaletxean. Ondoren, afaria izango dute Arrasate Hotelean euren senitartekoekin. Zorionak, bada, bikote, Berrigarako langileon izenean!

URTEURRENA

M[a] Josefa
Balenciaga Jauregui

Lehen urteurreneko meza domekan, abenduak 24, eguerdiko 12:30etan, Arrasateko Santa Teresa elizan

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Benita
Alberdi Mazmela

Lehen urteurreneko meza domekan, abenduak 31, goizeko 11:30ean, Antzuolako parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Manolita Saizar Alberdi
Reyes Corcostegui Villar

Lehen urteurreneko meza 2001eko urtarrilaren 14an, domeka, goizeko 11:30ean, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Pello Zabala

FRAIDEA ETA EGURALDI IRAGALEA

"Tenporak orain dira eta negu bigun samarra edukiko dugu... hori ez da ona izaten"

KLIMA ALDAKETA

"Klima dezente zirikatu dugu eta, ondorioz, kaltea eragin dugu, baina ez dakigu horrek zenbateraino eragiten dion"

EGURALDI IRAGARPENAK

"Gaur egun, eguraldiaren iragarpena beharrezko bihurtu da; izan ere, nork begiratzen du leihotik jada?"

Urtarrilaren 21ean neguan sartuko gara. Zer gomendio emango zenizkiguke?

Ez dago jakiterik, baina tenporak egunotan dira. Hego haizea ibili denez, lehenengo partean, behintzat, ez da gogorra izango. Tarteka, udazkenean bezala, Galiziatik etorritako mamarratxada batzuk egingo ditu, baina nahiko negu biguna izango dugu, eta hori ez da ona izaten...

Gabonetan elurra egin beharko luke? Ala telebistaren eta zinemaren eraginez nahiago ditugu Gabon zuriak?

Gabonetan ez du elurrik egingo. Urbian jadanik egin du zazpi aldiz elurra, baina abuztuan ere eguzkia egin behar ei du, eta...

Orain, esaterako, elurra nahi dugu eskiatzera joateko. Eta nahi dugunez, beti gutxi egiten du. Batzuek diote orain ez duela lehengo moduan egiten. Baina elurra, egin, egiten du, kontua da ez diogula uzten.

Klima dezente zirikatu dugu eta, ondorioz, kaltea eragin dugu, baina ez dakigu horrek zenbateraino eragiten dion klimari.

Zelan ospatuko dituzu Gabonak?

Mutikotan hemen igarotzen genituen eta urteko garairik onenak ziren: eskolabarik, egun guztiak antzezlanak prestatzen, filmak ikusten... dena jaia zen. Horregatik, oporrak sartu zirenean lehenengo negarrez jantzi ziren. Teologia ikasten ari ginenean, soldadutza zela-eta, parranda egiteko primerako garaia zen. Orduan ikasi nuen soinua jotzen.

Orain, berriz, fraide zahartsuak ditugu, beraz, familia giroan, baina 'aittonttuak zainketan'.

Liburuan naturaz eta eguraldiaren arteko harremanaz jarduten duzu. Asko aldatu da bien arteko lotura?

Gizarteak berak aldatu du. Alegia, gure gizartea baserritarra eta oso sakralizatua zen. Egutegia ikusteko modua ere beste bat zen: hasteko, ez zegoen egutegirik. Sainduen egunetan erreparatzen zuten. Giro hura berezia zen, eta kultura hori ere bildu nahi izan dut liburuan. Gaur egun, eguraldiaren iragarpena beharrezko bihurtu da; izan ere, nork begiratzen du leihotik jada?

Liburuan zeltiarren egutegia ere jaso dut. Gure arbasoek ohitura asko iparraldeko gizarteetatik jaso zituzten, eta horregatik, oso garrantzitsua irudi zitzaidan zeltiarrek egindako zuhaitzekiko egutegia.

Zergatik begiratzen diegu horrenbeste iragarpenei?

Lehengo ohitura zen zerura begiratzea, batez ere, baserrietan; baina gaur egun, zein eguraldi egingo duen jakin nahi izaten dugu, jantzia aukeratzeko: umeari oinetako egokiak janzteko edo Donostiatik Bilbora joan beharra dugulako.

Jarraitzaile asko dituzula badakizu.

Liburuarekin hori gertatu da. Zaletasuna dago: 'Amamari eraman behar diot goizero entzuten zaitu eta'. Badakit zahar askok kasu egiten didatela gauzak esaten ditudan moduagatik. Hala ere, 'aldaketa' hitzak buruhauste asko eman dizkit.

Meteosata ala tenporak?

Ogibiderako, meteosata, baina politagoa da tenporei begiratzea.

Beraz, zure ogibidea gustuko duzu?

Liburuan ere esaten dut, ogibideak ernegazioa eta amorrazioak hartzen dizu, eta eskerrak afizioa dagoen. Natura gertutik ikusteko aukera ematen dizu eta horrek asko erakutsi dit.

Zelan uztartzen dira eguraldia eta euskara?

Hasieran, ez genuen oinarririk. UZEIk ateratako hiztegiak bidea egin zuen eta oraindik ere balio duela uste dut. Eskola ere eman dituela uste dut. Oso politak dira esaterako, ikastetxeetan eguraldiko lanak egiteko apaindurak irtzen direla ikusteak, umeengan zaletasuna pizten ari dela dirudi.

Durangon ere izan zinen. Zer moduz?

Gustura ibili naiz. Baserritarrak bezala tasunagarik, ezta? Hainbeste saiu probatu dut, liburuarekin ere oso gustura ibili naiz. Gero, Durangoko sáltsa, hainbeste jende liburua sinatu beharra... Esperientzia polita izan da eta 400 liburutik gora saldu dira, baina 4.800 pezeta... ordaindu egin behar dira!

Asko irakurtzen dugu euskaraz?

Norbaitek esango du: 'bai zera!'. Baina, lehenago irakurtzen zenarekin alderatuta, baietz esango nuke. Irakurtzea zaila da, batez ere, telebista daukagula kontuan izanda. Hala ere, eskolatik datorren jendeak irakurtzeko ohitura dauka, eta, adibidez, ikastolatik ateratzen den mandana hori Durangotik pasatzen da; beraz, zer edo zer irakurriko da, ezta?

Dena dela, liburuak ez dira gordetzeko. Liburuak dantzan erabiltzeko dira. Lagunei emateko, irakurri ondoren, eta irakurtzen erakutsi behar dugu. Zaletasuna sortu behar dugu. Neuk seminarioan ere horixe egiten nuen: 'irakurri ezak kapitulu hau, dena irakurri beharrean'. Eta azkenean, ohitura sortzen duzu.

Zer nahiago? Euskaraz ala beste hizkuntza batean?

Denetarik irakurri dut: asko, musikaren gainean. Diskoetako azalak ingelesez, frantsesez eta alemanez datoz. Frantsesez eta italieraz ondo dakit, eta eskerrak horri.

Dena dela, gustura, euskaraz irakurtzen dut. Filosofia ikasten egon ginenean Oliten, euskarazko liburutegi polita genuen. Erdal herrian geunden eta euskaraz irakurtzeak bazuen bere garrantzia. Askok galduta zuten euskaraz irakurtzeko ohitura... Horrela ere ibili ginen euskararen alde.

Euskaraz ari garela, zer azpimarratuko zenuke Villasantez?

Fraide bezala oso zintzoa eta tradizioaren jarraitzailea zen. Bide bakarrekoa. Ordu asko igarotzen zituen bere gelan lanean, baina azken urteetan lan gutxiago egin zezakeen eta beherakada horretan jarraitu diogu. Horregatik nion erruki.

Euskaltzain bezala egindako lanari ez diogu hainbeste jarraitu. Hala ere, bere lanak irakurri izan ditut. Estilo propioa lortu zuen.

Ikasle nintzela Axularren hiztegia lantzen lagundu nion.

Gogoratzen dut eskola garaian hamar bat eman zidala. Ez dakit berak zenbaterainoko pretensioarekin egin zuen, baina nik 'euskaran saiatu behar diat' esan nuen. Juan Bautistaren gaineko lan bat egitea ere eskatu zidan. Euskaltzaindiaren bilera baterako, eta horri esker ezagutu nuen Juan Bautista Agirreren lana. Lan hori, gainera, askotan irakurri dut.

Musika klasikoan jantzia ere bazara. Zela iritsi zara horretara?

Seminarioan ez geneukan musika tresnarik, gaur egun bezala; bakar-bakarrik 'filarmonikatxoa'. Baina musika kantatzeko heziketa jaso genuen eta horrek barruko sonen zentzua hazten dizu. Orduan, rockero sena izan bagenu, dantzari aterako ginake!

Amezketan, zazpi urterekin solfeoa erakutsi zigun apaiz batek eta tiple ahotsarekin ere kantatzen genuen abesbatzan. Horri esker, Felix Ibarrondok eta biok, hirugarren urterako lau eskuekin piezak jotzen genituen.

Gerora hasi nintzen ofizioz musika lantzen eta azalpenak emateko afizionatzen ere ikasi dut. Irakasletza beti joan zait ondo eta hor ere ahal dela musika kultura sartzen saiatu naiz.

Podiuma

Javier Larrañaga | EHIZA TXAPELDUNA |

Joan den astean Gipuzkoako Diputazioak saritutako txapeldunen artean dugu Javier Larrañaga bergararra. Urrian taldekako munduko txapelketa irabazi zuen Araban, kontinental txakurren mailan, eta banakako sailkapenean bigarren geratu zen. Horrez gain, Errege Kopa ere irabazi du aurten.

Javier Larrañaga.

Zeintzuek hartzen duzue parte kontinental txakurren txapelketan?

Bi arraza nagusi daude: alde batetik, ingelesak (Setterrak eta Pointerrak, esaterako) eta bestetik, kontinentalak. Azken honetan Braco alemanak, Epaniel bretoiak, Cortal eta Dratal txakurrak batzen dira. Nik bi Epaniel bretoi ditut, *Zar* (lau urtekoa) eta *Dun* (sei urte), eta horiekin ibiltzen naiz lehiaketetan.

Zergatik Epaniel bretoiak?

Nire ustez, onenak dira. Izenak dioen bezala, Bretainiatik irtendako arraza da. *Prim* da eduki dudan txakurrik onena; 1983an, Frantzian, *Prim*ekin lehenengo izan nintzen 700 partaideren artean, eta sari hura eskuratzea oso pozgarria izan zen niretzat. Nolabait esatearren, *Prim*etik etorri dira besteak, beste odol batzuk sartuta. Txakurkumeak saltzeko eskaera asko izan ditut, baina horrelakoetan sartzeak ez nau erakartzen. Neuk hazitako txakurrekin ibiltzea gustatzen zait.

> "Nire iritziz Epaniel bretoiak dira txakurrik onenak. Neuk hazitako txakurrekin ibiltzea gustatzen zait niri"

> "Konpenetrazio handia behar da txakurraren eta nagusiaren artean, baina txapelketetan zortea izatea ere beharrezkoa da"

Nondik datorkizu ehizarako zaletasuna?

Aita zalea zen eta mutikotatik hasi nintzen ehizan berarekin. Lehiaketetan orain dela 30 urte hasi nintzen eta harrezkero Europa guztian ibilitakoa naiz. Bost aldiz taldekako munduko txapelketa irabazi dut eta 1998an banakako munduko txapela irabazi nuen, Portugalen.

Txapelketak zelakoak izaten dira? Zer baloratzen da?

Basora irten eta ehiztari talde batek eperrak akabätzen dituen bitartean, guk txakurrari aginduak eman behar izaten diogu. Konpenetrazio handia behar da nagusiaren eta txakurraren artean. Txakurrak zenbat eta sail gehiago hartu, gero eta aukera gehiago dago emaitza onak lortzeko, baina zortea izatea ere beharrezkoa da. Arauak ere badaude: adibidez, txakur bakoitzak bere arrazari dagozkion ezaugarrien arabera lan egin behar du.

Non entrenatzen duzu txakurra?

Hemen toki aproposak daude ariketa fisikoak egiteko, baina ehizan ibiltzeko, gutxienez Burgoseraino jaitsi behar zara.

Lehiakortasun handia dago?

Bai, baina erraztasunak eman behar zaizkio jende berriari, beteranoekin ezin dutelako lehiatu. Hainbat maila bereiztu beharko lirateke, pixkanaka gorantz egiteko.

Noiz arte jarraitzeko asmoa?

Osasunak laguntzen duen neurrian. Oraingoz gustura nabil.

E. M.

Nire Pronostikoa

IGOR ARENAZA / Eibar futbol taldeko jokalaria

Inguruko taldeen gorabeherak egunkarietatik jarraitzen ditut batik bat. Badakit Bergara azken partiduetan ez dabilela oso ondo, baina zapatuan Zamudiori irabaz diezaioke, bizkaitarrak sailkapeneko goialdean egon arren. Aloñak ere Oiartzunera egindako bisitaldian hiru puntuak eskura ditzake eta Aretxabaletarekin ere etxekoen alde egingo dut. Hondarribitarrekin *gafe* moduko bat daukagu; ea behingoz irabazten diegun. Mondraren eta Elgoibarre arteko partiduan arrasatearrek irabaztea ondo legoke... Euskadiko selekzioak ere bere maila erakusteko aukera izango du Marokoren aurka, nahiz eta afrikarrek talde ona izan, mundialean ikusi zenez.

Astebukaera honetako partiduak

A/	Zamudio	1	Bergara	2
B/	Oiartzun	0	Aloña Mendi	1
C/	Aretxabaleta	2	Hondarribia	0
D/	Elgoibar	1	Mondra	2
E/	Euskadi	3	Maroko	0

Errasti anaiak, txapeldunak, alboetan eta erdian txapeldunordeak.

Atxabaltarrak eta bergararrak txapeldun pilota finaletan

Kluben arteko txapelketako finalak jokatu ziren

E. M.

Joan zen astebukaeran amaiera eman zitzaion Gipuzkoako kluben arteko txapelketari eta Debagoieneko pilotariak protagonista izan genituen. Joseba Herran bergarar gazteak 22-17ko emaitzarekin irabazi zion Intxaurrondoko Yuberori, gazte mailako eskuz banakako finalean, egubakoitzean Uarkapen. Aurreko ligaxkan Yuberoren kontra jokatutako bi partiduak galdu zituen Herranek baina finalean bere onena eman zuen eta txapela jantzi zuen.

Jaialdi berean, nagusien 2. mailako binakako finalean, Eneko Osinaga eta Aitzol Lazkano Arrasateko bikoteak galdu egin zuen Billabonako Behar Zana taldeko bikotearen aurka, 22-15eko emaitzarekin. Lazkanok mina hartu ondoren, arrasatearrek ez zuten partidua irabazteko aukerarik izan.

Azkenik, Aretxabaletako Errasti anaiek 22-6ko emaitzarekin irabazi zieten Josu Errasti eta Lordi Zuazubiskar arrasatearrei domekan, Azkoitiako Gurea pilotalekuan, lehen mailako nagusien finalean.

ATZOKO TXAPELDUNAK

Jose Inazio Askasibar

Txirrindularia



Elgetako Olei baserrikoa, 17 urte zituela anaietako batek oparitu zion lehen bizikleta Jose Inaziori, eta handik gutxira Eibarko Educacion y descanso gazte mailako taldearekin hasi zen lasterketatan parte hartzen. Bere hitzetan, "ez nuen destakatzen, helmugan esprint onik ez nuelako. Erosoen aldapan gora ibiltzen nintzen eta lasterketa bat edo beste aurretik hanka eginda ere irabazi nuen". Periko Matxain zuzendariaren aginduetara Touring Cabania eta GAC Mobylette taldeetan aritu zen afizionatuetan, eta 1965ean Donostian izan zen munduko txapelketaren atarian, bi lasterketa irabazi zituen, bata Elgetan eta bestea Beasainen, munduko txapelketan parte hartu behar zuten txirrindulari afizionatuak tartean zirela. Hala ere, Saura hautatzaileak azkenean ez zuen aukeratu mundialean parte hartzeko.

Profesional mailara pasatzekotan egon zen, Fagor taldearekin, baina arazo batzuk tartean, taldea desegin zen eta, azkenik, La Casera Bahamontes taldearen eskaintza jaso zuen 1969an. Bahamontes txapeldun ohiarekin bi urte eman zituen profesionaletan. Hirugarren denboraldian ez zioten kontratua berritu. "Ez nintzen ondo ibili eta Bahamontesek berak Portugalera joateko aukera eskaini zidan. Azkenean, Oportora joatea erabaki nuen eta han Jose Migel Etxabarrirekin elkartu nintzen. Portugalen ere zaletasun handia zegoen. Urtebete eman nuen eta 26 urterekin txirrindularitza uztea erabaki nuen, lesio asko izan nituelako".

Ez zuen itzuli handi batean parte hartzerik izan: "behin, Girora joatekotan nengoela, klabikula hautsi nuen eta Espainiako Itzulian ere ez nuen parte hartzerik izan, belaunean izandako lesio baten erruz".

1969an Bilboko Sari Nagusia irabazi zuen, profesionaletan irabazi zuen lasterketa bakarra: "Ocaña, Galdos, eta Mingo Fernandezekin batera hanka egin eta Santo Domingoko helmugara bakarrik heltzea lortu nuen". Lehengo eta gaurko txirrindularitzaren arteko diferentziarik nabarmenena errepideetan dago; gaur askoz hobeto daudela dio, eta bere iritziz, Bernard Hinault izan da txirrindularirik onena, frantziarrak zuen tenperamentuagatik, batez ere.



EDU MENDIBIL

Zorionak eta Urte Berri On

MEKALKI
S. Coop.

Lantaldearen Indarra

Zubillaga, 13
20560 ONATI
Tel.: 943 781 911
E-mail: mekalki@mekalki.es
http:// www.mekalki.es

Negu Kulturala • Aretxabaletako Udala

- ***Abenduaren 24an*** • OLENTZERO • 18:30ean.
- ***Abenduaren 29an*** • KONTZERTUA: PETTI • 22:30ean. (Udaletxe Zaharrean)
- ***Abenduaren 26tik 29ra*** • POXPOLIN PARK (Kirol-etxean).
- ***Abenduaren 31n*** • BIZAR ZURI • 18:30ean.
- ***Urtarrilaren 5ean*** • ERREGEEN KABALGATA • Arratsaldeko 18:30ean.
- ***Urtarrilaren 12an*** • XABALTX (iparraldetik) • Gaueko 20:30ean (Kurtzebarri eskolako aretoan)
- ***Urtarrilaren 13an*** • SEBASTOPOLEKO TITIRITEROAK • MAMUTXOAREN ARAZOA antzezlanarekin. • 17:00 etan • (Kirol-etxean)

Poxpolin Park - Abenduaren 26tik 29ra

POXPOLIN PARK 2000

ARETXABALETA



urtarrilerako zabalik

Zainduz

OSASUN ETA FITNESS ZENTROA
CENTRO DE SALUD Y FITNESS

Zure bizi-kalitatea dugu helburu!

Ilargi Plaza, 6
Aretxabaleta
Tel. 658 75 80 12

Goienka 2a

Egubakoitza / 2000ko abenduaren 22a

Kultura eta Aisialdia

Abenduaren 22etik 29ra

"*El ritmo de garaje* hasiera izan zen; Madrilera joan ginen garaikoa eta *rayban* betaurrekoak erabiltzen genituen 'makarrak' bagina hartu gintuzten. Ulertu gintuzten bakarrak Eduardo Benavente, Alaska, Glutamato Ye-ye taldeko Iñaki eta Gabinete izan ziren".

LOQUILLO

"Milioi batetik gora disko saldu badituzu eta manager lanetan Gay Mercacer historikoa baldin baduzu, Javier Galvez heavyzalea agente bezala, Jaime Stinus bezalako 'gitar-heroa' produkzio lanetan eta diskoaren azala Toni Luz gitarrista ezagunak diseinatzen badizu, bide onetik zoaz. Gainera, Pepe Risik bere kantuak utzi bazizkizun eta azken 20 urteko rock-and-roll talderik onena baduzu, Espainiako rockaren gainean ari gara".

SUSANA KOSKA

"Erabateko baloreen eskala du eta hiru oinarri nagusi ditu: ohorea eta fideltasuna, nirekin edo nire aurka eta errespetua nagusiekiko".

JAUME NADAL ETA SANTI ANDREU

'Cuero español'

Garaiak aldatzen ari dira, baina *garaje erritmoak* entzuten dira *Hawaii 5.0*an. Ez zenuen entzun, bada, *77an*? *Dantzaren mafiak* eta *emakumeekin ditudan arazoek udaberrian hiltzera* eramango naute. Baina, lasai, *gutxi baitira eta ausartak*, bai, bai, *gizonak*. *Arnasa hartzen dudan bitartean, bizitza oso bat* dudala ohartzen naiz; hala ere, *hiltzaile garaia* gertu dago eta *bidaiatzeko lagunak* behar ditut. Hori bai, *dotoreak*, *Loquillo eta Trogloditak* bezalakoak. *Bederatzi trago* hartuko ditugu *erregearen omenez*.

Zapatuan, gainera, *Cuero Español* diskoa entzuteko aukera izango dugu aurreko guztiez gain. Bergarako Jam aretoan, 23:00etatik aurrera.

Kontzertua Arde Asia Barakaldoko taldeak hasiko du.

Errezitatuz

Ahots latza du eta abesten baino errezitatzen ari dela dirudi. Oldarkorra da eta laidogarria batzuetan. Baina izaera sendoa du. Arazoak ere ekarri dizkio horrek, baina bi metro luzen den Jose Maria Sanzek bere horretan segitzen du. Ezin hobeki zaindutako tupe eta patilekin (belarrondoko bizar) Ricard Puigdomenech eta Simon Ramirez "Trogloditekin" bere sustraietara itzuli da azken diskoan. Eta adi, Loquillozaleok: Loquillo film bat egiten ari da Mario Camusekin Bartzelonan, bere biografia argitaratzear dago, urtarrilean lan berria grabatzen hasiko da eta hori gutxi balitz, Los Intocables eta Loquillo y Trogloditas taldeek grabatu riko abestiekin bilduma berezia aterako dute.

MARIJO DEOGRACIAS

Loquillo



Bergaran, zuzenean zapatuan

GOIO ARANA / ILUSTRAZIOA: LOQUILLO.COM

gaur
ostirala, abenduak 22,
irekitzen dugu!!

Euskaltel

Zatoz gure denda berria ikustera.

telbask
Telecomunicaciones y Sistemas

informatika · telefono mugikorrak · sakelako telefonoendako osagarriak

Ibargarai Hiribidea, 20 · bergara

ESPEZIALISTA BATEN BERMEAREKIN

GOIZPER S. COOP.

MATABI IHINZTAGAILUAK

- NEKAZARITZAN, LORATEGIAN, INDUSTRIAN, ETA ETXEAN TRATAMENDUA EGITEKO IHINZTAGAILU ETA HAUTSEZTAGAILUAK.

GOIZPER TRANSMISIOAK

- ENBRAGEAK, BALAZTAK
  - PNEUMATIKOAK
  - HIDRAULIKOAK
  - MEKANIKOAK
  - ELEKTROMAGNETIKOAK
- ESPEKADUN ETENKAKO BIRAGAILUAK
- ESPEKA BEREZIAK



ANTIGUA, 4 - 20577 ANTZUOLA
211 POSTA KUTXATILA - 20570 BERGARA
TEL: 943 786000
FAXA: 943 766008 - 943 787095
E-MAIL: goizper@goizper.com

Kronika

Zarzuela: **La tabernera del puerto**

Mondragoeko zarzuela tradizioa

Musika: Pablo Sorozabal.
Libretoa: Fernando Romero eta Guillermo Fernández Shaw.
Aktoreak: Cristina Cubillo, Mikel Balanzategi, Naroa Elortza, Mertxe Salaberri, Luis Mari Okina, Tomas Axpe, Iñaki Olaizola, Mikel Izurrategi, Josetxu Urrutia eta Josean Garcia.
Abesbatza: Izaskun Murgia Elkarte Lirikoa.
Zuzendaria: Jose Luis Egiluz.
Eszena zuzendaria: Josean Garcia.
Orkestra: Donostiako Orkestra Sinfonikoa.
Zuzendaria: Jose Luis Egiluz.
Musika zuzendaria: Tere Gonzalez.
Noiz eta non: Abenduaren 16 eta 17an, Mondragoeko Amaia antzokian.
Iraupena: Bi ordu eta erdi.
Zenbat jende: 1.200 lagun.

Arrakasta handia izan zuen joan zen asteburuan aurkeztutako zarzuelak.

Abenduaren 16an Pablo *Sorozabalen La tabernera del puerto* zarzuela antzeztu zuen Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak. Arrasateko amaia antzokian; eta aldi berean, elkartea jendaurrean aurkeztu zuten.

Oso ondo antzeztu zuten, bai musikari begiratuta eta baita antzezlanari begiratuta ere, zuzen. Musikazaleok, eta bereziki zarzuelazaleok, zorioneko gaude. Aurrera begira, etorkizun musikal ezin hobea duen errealitate baten aurrean gaude, Mondragoeko zarzuela tradizioan zegoen hutsunea betetzera datorrena.

Antzezlana azaletik begiratuz, erabateko arrakasta izan zen. Aktore nagusi guztiak bikain aritu ziren:

Cristina Cubillo (*Marola*), ahots eder eta adierazkorrarekin; Tomas Axpe (*Leandro*) eta Mikel Balanzategi (*Juan de Egia*) bikain aritu ziren. Gainera, oso ondo antzeztu zuten, taulara igotzen ziren lehenengo aldia zela kontuan hartuz. *Simpson* antzeztuz Iñaki Olaizolak egindako lana azpimarratu behar da, izan ere, aurretik ere egin du antzezpenik. Gauza bera Naroa Elortzaz (*Abel*): Naroak grazia paregabea erakutsi zuen antzeztokian. Nabarmetzekoa da baita ere Mertxe Salaberri eta Josetxu Urrutia bikotearen (*Antigua* eta *Chinchorro*) lan komikoa, ikusleak barrez leherrarazi zituzten eta. Azkenik, Mikel Izurrategiren (*Ripalda*) eta Luis Maria Okinaren (*Verdier*) lana aipatuko dut, biek ere oso modu egokian antzeztu zuten eta.

Bestalde, abesbatzak izaera eman zion obrari, ahots paregabeekin, eta ondo egokitutakoak, gainera. Emakumeak eta gizonezkoak, bakarka zein guztiak elkarrekin, bikain aritu ziren. Tere Gonzalezen lana, bakarlariak eta abesbatza prestatzen, eraginkorra, garrantzitsua eta erabatekoa izan da. Eta Josean Garciaren lanak, aktoreen zuzendari bezala, oso emaitza onak eman ditu. Azkenik, Donostiako Orkestra Sinfonikoak, 30 bat musikarirekin, oso soinu ona eskaini zuen eta lan bikaina egin zuen.

Horrez gain, asko poztu gintuen orkestran Arrasateko hainbat musikarik parte hartu izana; Arrasate Musikal orkestra zaharreko kide ohiak, hain zuzen ere.

Pasarte batzuetan orkestrak soinu larregi atera zuen eta hainbat abeslariren ahotsa estali zuen. Orkestrak bere soinu-hotsa egokitu behar du antzezle bakoitzaren ahots motara. Ez da gauza bera Placido Domingo edo Jose Carrerasi laguntzea, biak ere tenore bikainak, baina aldi berean, ahots tinbre eta soinu-hots desberdinekoak. Horren salbuespen moduan, asko gustatu zitzaigun orkestra zuzendaria. Jose Luis Egiluz bilbotarrak bikain zuzendu zituen abeslariak eta orkestra, keinu dotore eta zehatzekin.

Madrildik ekarritako dekoratuak liluragarriak ziren.

Nire zorionik beroenak zarzuelan parte hartu zuten guztiei, bereziki Tere Gonzalez Arrasate Musikaleko kantu irakasle eta Izaskun Murgia Lirika Elkarteko zuzendariari. Eta baita Jesus Mari Arze dinamiko eta laguntzaile paregabeari.

JUAN ARZAMENDI

Nire aukera

Manu Gomez
Zinema zuzendaria

Zaila da horri erantzutea, baina atsegin ditudan pelikula guztien artean gehien ikusi dudana, buruz jakin arte, eta nolabait ohe ondoan beti izaten duzun liburu horren parekoa litzatekeena, Luis García Berlangaren "El Verdugo" da. Benetan liluragarria da hain une trajikotan nola erabiltzen duen Berlangak umore beltza. Frankismoaren garairik gorenean mezu subliminalak bikain sortu zituen. Esan daiteke pelikula hau frankismoaren aurkako lan iraultzailea dela, eta Francoren zentsurak, hain zorrotza omen zen hark, ez zuen hori antzeman ere egin. Benetako mezu subliminalak ziren".

'EL VERDUGO'
Luis Garcia Berlanga

IÑIGO BIAIN

Kaleratu berriak

Iban Arantzabal

LIBURUA / *Poesia*

HARRI ETA HERRI
GABRIEL ARESTI
Susa poesia

Hemen dago gizona. Paper honetan dago. Nago. horrela hasi zuen Arestik bere obra nagusia. Publikotasuna aldarrikatzen du ni pertsonala konkretu eta arrunta delako, edozeinena; tradizioa hautsiz, nortasun zibilez sinatzen duArestik, Arrese-Beitia, Iparragirre eta Elizanbururen antzera. Oihukatzeraino heltzen diren eta "euskera klaro batean" idatziako askotariko poema aberatsak. Berrargitalpena, Izagirreren hitzaurrearekin, Susak argitaratu du. Etxeko liburutegian beharrezkoa den liburuetako bat.

LIBURUA / *Umeendako*

HARRY POTTER ETA SORGIN-HARRIA
Elkarlanean SL
279 orrialde
1.900pta

Sorpresaz eta txantxaz beteriko istorioa da Harri Potter-ena, eta bidezkoa da Roald Dahl-ekin konparatzea. Umeendako liburua dela esan dugun arren, irakurgai gomendagarria da adin guztietarako. Erabat liluratu ditu beste herrialde batzuetako umeak eta "Pottermania" sortua dago. Egilea J.K Rowling-ek egina eta Iñaki Mendigurenek euskarara egokitu eta itzulia.

Besterik etorriko bada ere, momentuz, *Harry Potter eta sorgin-harria* deitutakoarekin goza genezake barrenean ume garen guztiok.

DISKOA / *Poesia eta kantua*

UZTAIL OPARO OSTEAN
IGOR CALZADA eta HARKAITZ CANO

Uztail oparo ostean egitasmoa Igor Calzada kantugilearen eta Harkaitz Cano idazlearen elkarlanetik sortzen da, eta idazleak kantugileari egiten dizkion letren maileguaz haratago doa. Lau kantu eta bi korte errezitatu jasotzen ditu konpaktu honek. Kantu & R-zitala zigiluarekin laburbil daiteke. Kantuekin eta musikarekin lotuta doan gidoiaren irakurketa proposamena egin nahi die egileek ikus-entzuleei. R-zitala da, beraz, eta ez errezitala. Autoprodukzioa izanik, harremanetarako:uoo_hi@yahoo.com

Abendua: 22-29

Edu Mendibil

Musika

ARETXABALETA> Aretxabaletako Akordeoi Orkestraren kontzertua egubakoitzean, hilak 22, elizan, 20:00etan.

> **Pettiren** kontzertua hilaren 29an, Ezkutu tabernan, 22:30ean.

BERGARA> Gabonetako kontzertua. Udal Musika Banda, Aritzeta abesbatza, Orkestra Sinfonikoa eta Bergarako Orfeoia zapatuan, hilak 23, Udal Pilotalekuan, 22:00etan.

> **Oscar Mulero, Fat Fish, Gorka eta Chusso** disko jartzaileak Jamen egubakoitzean, hilak 22, gauerdian. 1.500 pezeta.

> **Aitzol Mujika** zapatuan Torrekua erretegian, 18:30ean.

> **Loquillo y los Trogloditas** eta **Arde Asia** zapatuan, hilak 23, Jam aretoan, 23:00etan.

> **Arima Beltza** zapatuan, hilak 23, gaztetxean, 22:30ean.

> **Mikel Telleria** eguenean, hilak 28, Pol-Polen, 22:30ean.

> **Karbon 14** eta **Anger** taldeak egubakoitzean, hilak 29, gaztetxean, 22:30ean.

> **Platero y Tu** egubakoitzean, hilak 29, Jam aretoan.

> **Dut, Anari** eta **Lisabo** hilaren 30ean, Jamen.

> **Bad F-Line** eta **Serial Number** taldeak urtarrilaren 4an, Go-Jam aretoan.

ELGETA> Matadero eta **Malestar** taldeak zapatuan, hilak 23, gaztetxean, 22:30ean.

ESKORIATZA> Musika Eskolako bandaren Gabonetako kontzertua urtarrilaren 6an, parrokian, 13:00etan.

OÑATI> Oñati abesbatzaren Gabonetako kontzertua zapatuan, hilak 23, Agustinoen elizan, 20:15ean.

Erakusketak

ARRASATE> Asun Balzolaren *Ilustrazioa ezagutu* erakusketa, Monterronen.

> **Jose Reyes Ramosen** margoak, Toki-Eder tabernan.

BERGARA> Martzial Agirre eskultorearen oroimenezko erakusketa, osoko bilkuren aretoan, hilaren 28a arte.

> **Bergarako pintoreen erakusketa** abenduaren 22tik urtarrilaren 7ra, Bearteko lokalean, Bolun.

> **Eduardo Arrillaga** argazkilaritzaren erakusketa Kultura Etxean, urtarrilaren 1a arte.

> **Azuren** argazki erakusketa, Avenida tabernan.

ESKORIATZA> Herriko artista gazteen erakusketa, Kultura Etxean, urtarrilaren 1a arte.

ZARAUTZ> Kepa Landaluze mondragoetarraren margolanak, Zazpi Arte galerian, urtarrilaren 7a arte.

Lehiaketak

BERGARA> Amodiozko gutunen IX. lehiaketa. Jardun elkarteak deituta. 1986an edo lehenago jaiotako edozeinek parte har dezake. Lanak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 8a izango da. Argibideak 943 76 08 19 telefono zenbakian.

Ikastaroak

ARRASATE> Etxeko lanak eta ardurak gizonezkoen eta emakumezkoen artean elkartrukatzeko lantegiak, urtarriletik apirilera bitartean, martitzen eta eguenetan, 18:00etatik 20:30era. Argibideak eta izenematea Gazte Bulegoan, 943 77 00 65 telefono zenbakian.

BERGARA> Euskara suspertzaile ikastaroa, Jardunek eta Bergarako Udalak antolatuta, urtarrilaren 13an, 20an, 27an eta otsailaren 3an, Udal Euskaltegian. Argibideak Jardun elkartean: 943 76 08 19.

> **Zeramika ikastaroa**, Simon Arrieta zeramika taldeak antolatuta, urtarrilaren 15etik aurrera, astelehenetan eta eguaztenetan, 18:30etik 20:30era. Ikastaroak bost hilabete iraungo du. Izen-ematea urtarrilaren 6a arte zabalik. Argibideak 943 76 19 17 (goizez) telefono zenbakian.

> **Fandango eta arin-arin ikastaroa**, helduei zuzenduta, Moises Azpiazu dantza taldeak antolatuta. Zapatu goizetan, 11:00etatik 12:00etara. Argibideak 943 76 15 40 zenbakian.

Deiak

ANTZUOLA> Mahai ingurua: *El deporte base: de la escuela al club*. Partaideak: Jesus Mari Zamora, Juan Antonio Larrañaga eta Jose Luis Ribera jokalari ohiak eta Xabier Azkargorta entrenatzailea. Moderatzailea: Iñaki de Mujika, Herri Irratiko esataria. Eguenean, hilak 28, zinema aretoan, 19:00etan.

>**Gabonetako jolas parkea** urtarrilaren 3an, pilotalekuan.

ARETXABALETA> Baserriz baserri kantuan domekan, plazan, 08:30ean.

> **Olentzerori ongietorria** domekan, 18:30ean.

> **Poxpolin Park.** Ume eta gaztetxoendako ekitaldiak abenduaren 26tik 29ra, kiroldegian. Hilaren 26tik 28ra, 16:00etatik 20:00etara, eta hilaren 27, 28 eta 29an, 10:00etatik 13:00etara.

> ***Euskal presoak etxera*** lelopean kale bilkura hilaren 30ean, Mitarte kalean, 19:30ean.

> **Bizar Zuri** hilaren 31n irtengo da kiroldegitik, 18:30ean.

> **Erregeen kabalgata** urtarrilaren 5ean, 18:30ean.

ARRASATE> Txikilandia parkea, Txatxilipurdi taldeak antolatuta, urtarrilaren 2tik 5era, Musakolako kiroldegian.

> **Sexologia zerbitzua** (Garibai etxean) abenduaren 28an eta urtarrilaren 4an izango da zabalik, 10:00etatik 13:00etara. Argibideak 943 79 80 10 zenbakian.

BERGARA>Hitzaldia: *Abiadura Handiko Trena*. Eguaztenean, hilak 27, gaztetxean, 19:00etan.

>**Hitzaldia:** *Eolikoak*. Partaideak: Besaide Mendizale Taldeko kideak. Eguenean, hilak 28, gaztetxean, 19:00etan.

>**Gabonetako jolas parkea** abenduaren 26tik 29ra, kiroldegian, 15:30etik 18:30era. Derrigorrezkoa da kirol oinetakoak eramatea. Bost urtetik beherako umeendako joku bereziak izango dira. Eguneroko sarrera: 300 pezeta.

>**Kiko, Koko, Moko eta Flax** pailazoak egubakoitzean, hilak 29, kiroldegian, 17:45ean.

>**Olentzero** abenduaren 24an irtengo da umeen eskutitzak jasotzera, 19:00etan.

>**Erregeen kabalgata** urtarrilaren 5ean, 19:30ean.

>**Gazte mailako X. futbol txapelketa.** Eguenean, hilak 28, Reala-Aretxabaleta, Ipintzan, 17:00etan. Egubakoitzean, ordu eta toki berean, Bergara-Alona-Mendi. Irabazleen arteko finala abenduaren 31n, Agorrosinen, 16:00etan.

>**San Martin ikastetxeko** ikasleak kantuan irtengo dira domekan, hilak 24, 11:00etan.

>**Nafarroako Sehaska** elkarteko egutegiak salgai daude Aranzadi ikastolan eta Jardunen.

>**Jardun.** Kartzela zaharra zabalik izango da gaztetxoendako hilaren 30ean eta urtarrilaren 2an, 3an eta 4an, 16:00etatik 20:00etara. Hilaren 30ean urteko azken jaia egingo da.

>**Amnistiaren Aldeko Batzordea.** Domekan, hilak 24, presoen aldeko Olentzerori hasiera emango zaio Zabalan, 8:00etan. 15:00etan herri bazkaria izango da Artatsen, eta arratsaldean euskal preso eta iheslarien aldeko kartelada, 19:00etan. 20:00etan omenaldia egingo zaie senideei, San Martin plazan. Bestalde, presoen aldeko marisko janaren zozketa eta brindisa hilaren 31n, plazan, 20:00etan. Euskal presoen aldeko gose greba, hilaren 26tik 30era. Urtarrilaren 5ean herri poteoa eta ondoren kartelada, plazan, 19:30ean. Urtarrilaren 7an Intxortara igoera.

ARRILLAGAREN ARGAZKI ERAKUSKETA. Eduardo Arrillaga argazkilari elgoibartarraren *Herri baten argia* izenburuko argazki erakusketa ikusgai izango da urtarrilaren 1a arte Bergarako Kultura Etxean. Arrillaga aski ezaguna da argazkilaritzan eta dagoeneko toki askotan erakutsi eta argitaratu du bere lana. Bergaran ikus daitekeen erakusketan zuri-beltzean ateratako nekazaritza giroko 27 argazki zintzilikatu ditu Arrillagak. Astebarruan 18:00etatik 21:00etara zabalik izango da erakustokia eta zapatu eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

ORTO + LAGUN
ORTOPEDIA
Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tel.: 943 79 89 34
- Gurpildun aulkiak
- Ohe artikulatuak, gaixoak eramateko garabiak
- Komun-aulkiak
- Eskaren aurkako aire eta ur koltxoiak

Margo erakusketa

Rafael Fernandezen margolanak Mondragoeko Harresi aretoan

Urtarrilaren 7a arte

Zinema

ELGETA > Olentzerori ongietorria zapatuan, hilak 23, plazan, 19:00etan. Aurretik, txokolatada egongo da Ozkarbi elkartean idazlan eta krismak egin dituzten umeendako, 16:30ean. Erakusketa Kultura Etxean izango da, 18:30etik aurrera.

> Gabonetako jolas parkea urtarrilaren 3tik 5era, pilotalekuan, 15:30etik 18:00etara.

ESKORIATZA > Gabon eguna domekan. Trikitixa Eskolakoekin kalejira 13:00etan, eta ondoren, Olentzeroren laguntzaileak kalera irtengo dira umeen eskutitzak jasotzera. Goizez zein arratsaldez, gaztaina erreak, Herriko Plazan. Arratsaldean Olentzero kalez kale ibiliko da herritarren kantuen laguntzaz, 17:30etik aurrera.

> Gabonetako jolas parkea abenduaren 26an, 27an eta 28an, kiroldegian, 12:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:30era. Hilaren 29an antzerkia izango da. Lau egunetarako bonoa: 500 pezeta.

> Erregeen kabalgata urtarrilaren 5ean, 18:30ean.

OÑATI > Zirko majikoa zapatuan, hilak 23, Kiroldegian, 17:30ean.

> Olentzero domekan helduko da, 18:00etan.

> Gabonetako jolas parkea abenduaren 27tik 29ra, 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara.

> Ur jolas parkea urtarrilaren 2tik 5era igerilekuetan.

> Erregeen kabalgata urtarrilaren 5ean, 18:30ean.

> Bertso jaialdia Eurtarrilaren 5ean. Egaña, Lizaso, Peñagarikano, Joxe Agirre eta Irazu.

Jaiak

ARRASATE > Santamasak. Egubakoitzean, hilak 22, bertso jaialdia Amaia antzokian, 20:00etan. Partaideak: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Igor Elortza, Estitxu Arozena eta Xabier Silveira. Gauean dantzaldia, Irailerako 6 taldearekin, Herriko Plazan, 23:00etan; eta gauerdian txerriaren zozketa. Domekan Olentzeroren irteera, 18:00etan; eta Olentzerori agurra, Herriko Plazan, 19:30ean.

Altuna
Pabeiloi berria Bergarako Industrialdean.
Zatoz inauguraziora!
ABENDUAREN 23an, eguerdiko 12etan.
Tel/Faxa: 943761211

ARRASATE / ALAI ZINEMA

Lo que la verdad esconde
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00.
Astelehena: 17:00, 19:30, 22:00.
Martitzena (ikuslearen eguna): 19:00, 21:30.

BERGARA / NOVEDADES

Los ángeles de Charlie
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00.
Astelehena: 17:00, 19:30, 22:15.

El camino a casa
Eguena, zine-kluba: 20:00.

OÑATI / SANTANA

La comunidad
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Martitzena: 19:30, 22:30.

Alta fidelidad
Eguena, zine-kluba: 20:00.

EIBAR

UNZAGA

Otoño en Nueva York
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00.
Astelehena: 17:00, 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

RIALTO

Persiguiendo a Betty
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELGOIBAR / HERRIKO ANTZOKIA

Bar Coyote
Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 19:30, 22:15.

El portero
Martitzena, zine-kluba, hilak 21: 22:15.

Fugitivas
Eguaztena, zine-kluba: 22:15.

El portero
Eguena, zine-kluba: 22:15.

El bola
Eguakitza, hilak 29: 22:15.

ELORRIO / ARRIOLA

Bailame el agua
Zapatua: 22:30.
Astelehena: 20:00.

Monos como Becky
Eguena, zine-kluba: 20:15.

AZKOITIA / BAZTARTXO

La comunidad
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 22:00.
Astelehena: 19:30.

DURANGO / ZUGAZA

La celda
Zapatua: 19:00, 22:00.
Domeka: 19:00.

Bar Coyote
Martitzena: 19:00, 22:00.
Eguaztena: 19:00, 22:00.

GASTEIZ

GURIDI

Dinosaurio
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30.
Astelehenetik eguenera: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

Lo que la verdad esconde
Egubakoitza: 19:45, 22:30, 01:00.
Zapatua:19:45, 22:30, 01:00.
Astelehenetik eguenera: 19:45, 22:30.

Manuelita
(Marrazki bizidunak)
Zapatua: 16:30, 18:30.
Domeka: 17:00.
Astelehenetik eguenera: 16:30, 18:30.

El sexto dia
Egubakoitza: 19:45, 22:30, 01:00.
Zapatua: 19:45, 22:30, 01:00.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

Otoño en Nueva York
Egubakoitza: 22:30, 01:00.
Zapatua: 22:30, 01:00.
Astelehenetik eguenera: 22:30.

El grinch
Egunero: 17:00.

Los ángeles de Charlie
Egubakoitza: 20:00, 22:30, 01:00.
Zapatua: 20:00, 22:30, 01:00.
Astelehenetik eguenera: 20:30, 22:30.

Los padres de ella
Egubakoitza:17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Little Nicky
Egubakoitza:17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 01:00.
Domeka: 17:00.
Astelehenetik eguenera: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

Pokemon 2
Egubakoitza:17:00, 19:45.
Zapatua: 17:00, 19:45.
Domeka: 17:00.
Astelehentik eguenera: 17:00, 19:45.

MIKELDI ZINEMAK

Besos para todos
Egubakoitza:18:15, 20:30, 22:45, 01:15.
Zapatua: 18:15, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka:18:30.
Astelehenetik eguenera: 18:15, 20:30, 22:45.

Lo que la verdad esconde
Egubakoitza:20:00, 22:45, 01:15.
Zapatua: 20:00, 22:45, 01:15.
Domeka:18:15.
Astelehenetik eguenera: 20:00, 22:45.

¡Ja me maaaten!
Egubakoitza:16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 01:15.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 01:15.
Domeka:16:30. 18:30.
Astelehenetik eguenera: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45.

Dinosaurio
Egunero: 16:30, 18:15.
Domeka:16:30.

Scary movie
Eguabakoitza: 22:45, 01.15.
Zapatua: 22:45, 01.15.
Astelehenetik eguenera: 22:45.

Otoño en Nueva York
Eguabakoitza: 20:30. 22:45, 01.15.
Zapatua: 20:30. 22:45, 01.15.
Astelehenetik eguenera: 20:30, 22:45.

El pequeño vampiro
Egunero: 16:15.

Planeta rojo
Egubakoitza: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:15.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka: 16:15, 18:30.
Astelehenetik eguenera: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.

Los padres de ella
Egubakoitza: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:15.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka: 16:15, 18:30.
Astelehenetik eguenera: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.

Granujas de medio pelo
Egubakoitza: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka: 16:30, 18:30.
Astelehenetik eguenera: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45.

Little Nicky
Egubakoitza: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka: 16:30, 18:30.
Astelehenetik eguenera: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45.

Pokemon 2
Egunero: 16:15, 18:15, 20:30.
Domeka: 16:30, 18:30.

La ruta hacia El Dorado
Egunero: 16:30, 18:30.

MIKELDI ZINEMA

El grinch
Egunero: 16:30, 18:30.
Domeka: 16:30.

Bailame el agua
Egunero: 20:30, 22:45.
Domeka: 18:30.

SAMANIEGO

La isla del cangrejo
Egunero: 17:00.

Scary movie
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00.

You're the one
Egubakoitzetik eguenera: 19:45, 22:30 (domekan ez dago emanaldirik).

Persiguiendo a Betty
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00.

Nacional 7
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00.

AZUL

El lado oscuro del corazón
Zapatua: 20:00, 22:30.
Domeka: 19.00.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 22:30.

Ametsen lapurra
Eguabakoitzetik eguenera: 17:30.
Domeka: 16:30.

Dancer in the dark
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka: 16:30, 19:00.

LOS ÁNGELES DE CHARLIE
ZUZENDARIA: LEONARD GOLDBERG. AKTOREAK: CAMERON DIAZ, DREW BARRYMORE, LUCY LIU. ADIN GUZTIAK
1970eko hamarkadako telesail arrakastatsuan oinarritutako filma. Zinemarako bertsioan beti bezain eder eta lasterrak ageri zaizkigu *Charlieren aingeruak*, Farrah Fawcet, Jaclyn Smith eta Kate Jackson aktoreen lekukoa hartuz (konparazioak ezinbestekoak dira). *Eric Knox* enpresariaren bahiketa ikertu beharko dute, baina bidean hainbat oztopo izango dituzte.

LO QUE LA VERDAD ESCONDE
ZUZENDARIA: ROBERT ZEMECKIS.
AKTOREAK: HARRISON FORD, MICHELLE PFEIFFER. > 13 URTE
Robert Zemeckis zuzendariak (*Forrest Gump*) tentsioz beteriko filma dakarkigu oraingoan. *Spencer* medikua (Harrison Ford) pozik bizi da *Claire* emaztearekin (Michelle Pfeiffer). Hala ere, aurretik, modu misteriotsuan hil zen emakume batekin abentura bat izan zuen eta emazteari hildakoaren mamua ikusten duela iruditzen zaio...

LA COMUNIDAD
ZUZENDARIA: ALEX DE LA IGLESIA. AKTOREAK: CARMEN MAURA, EMILIO GUTIERREZ CABA, TERELE PAVEZ, SANCHO GRACIA. > 13 URTE
Donostiako Zinemaldia ireki zuen filmak harrera beroa jaso zuen eta Carmen Maurak emakumezko aktore onenaren saria irabazi zuen. Etxe batean 300 milioi topatu ondoren, higiezinen agentzia batean lan egiten duen *Julia*k (Carmen Maura) auzotar guztiei aurre egin beharko die. Tentsioa eta umore beltza nagusi.

1 ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate [illegible] 943 79 8[illegible] edo 943 79 81 2[illegible]

Bergara [illegible] 943 76 23 31.

Gasteiz Etxebizitza salgai [illegible]

Aretxabaleta [illegible]

Arrasate [illegible]

Arrasate [illegible] 943 7[illegible] 19 4[illegible]

102. EROSI

Bergara Hornitu gabeko apartamentu txiki bat erosi edo alokairuan hartuko genuke. 610 29 33 33.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate 4 logelako etxebizitza ikasleentzat alokagai. 943 76 25 82 eta 943 79 98 86.

Bergara Etxeko logelak alokatzen ditut. Sukaldea erabiltzeko aukera. 40.000-50.000 pezeta hileko. 943 76 15 40.

Bergara Pisu txiki bat alokatzen dut. Hornitua. 943 76 47 28.

Arrasate Erdialdean pisua alokatzen dut. Hornitua. 670 77 01 57.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate Bi neska arrasatearrek (ez ikasleak) pisua alokatuko lukete. 630 45 12 79.

Arrasate. Pertsona heldu batek pisua behar du errentan hartzeko. 943 79 61 72.

Debagoienean alokairuzko etxebizitza behar dut. 943 71 61 89. Juan.

Antzuola. Urtebeterako pisua behar dugu alokairuan. 943 75 21 00. Gotzon.

Arrasate. Pisua hartuko genuke errentan. Senar-emazteak gara. 945 44 52 77.

Aramaio. Eskoriatzan edo Aretxabaletan pisua behar [illegible]

105. ETXEA OSATU

Arrasate Etxebizitza bila [illegible] 943 [illegible] deitu.

Jaca Eski denboraldirako beste bi pertsonarekin edo etxebizitza osatuko genuke. [illegible] 43 79 68 04.

Arrasate [illegible] neska behar da [illegible]

2 GARAJEAK

201. SALGAI

Bergara. Garajea salgai [illegible] Prezioa [illegible] 943 76 35 74.

Bergara [illegible] garaje itxia salgai. Hiru auto sartzen dira. Uradauka. Ondo prestatuta dago. 943 76 26 82.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate Garaje itxia alokagai Larrea auzoan. Interesatuek, deitu 943 79 69 41.

3 LOKALAK

301. SALDU

Arrasate Bi solairuko eta 100 m-ko lokala salgai Kalealdea, 4an. 943 79 42 65.

303. ERRENTAN EMAN

Bergara Irala kalean lokala errentan. 70 m . 943 76 51 94.

304. ERRENTAN HARTU

Arrasate Gazte talde batek lokala behar du alokatzeko. Merkea izan dadila. Tel.: 943 79 26 19. Mikel.

Arrasate. Gazte batzuek lokal bat alokatu nahi dute. 943 77 01 50. Mikel.

Bergara. Gazte talde batek lokala alokatuko luke. Merkea bada, hobeto. 626 95 21 02.

305. BESTELAKOAK

Bergara Taberna alokairuan. 656 77 22 91.

1. ETXEBIZITZAK
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA
501. ESKAINTZAK
502. ESKAERAK
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako deiak bakarrik iragarriko dira.

943 76 92 71

Zure iragarkia 60.000 lagunek irakurriko dute!

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

4 LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Neska eta mutila prest edozein lanetan aritzeko. 600 600 531.

Arrasate. Neska prest umeak zaindu edo etxeko garbiketak egiteko. 943 79 94 20. Camila.

Arrasate. Taberna batean lana egingo nuke zerbitzari. Esperientziaduna. 653 71 87 72.

Arrasate. Errotulazio lanetan esperientziaduna prest alor horretan lan egiteko. 653 71 87 72.

Arrasate. Mutil arduratsu bat hainbat lan egiteko prest dago: zerbitzari, pintore, nagusiak edo umeak zaindu, eta bestelakoak. 653 71 87 72. Juan.

Arrasate. Ingeles Filologia ikasten ari den mutil batek ingelesezko eskola partikularrak emango lituzke. 943 71 47 85. Jon.

Bergara. Esperientziadun emakumea gertu umeak zaintzeko. 653 71 54 28. Carmen.

Esperientziadun neska dendaren batean egun erdiz lan egiteko gertu. 943 76 10 11.

Arrasate. Neska prest arratsaldez umeak zaintzeko edo orduka lan egiteko. 943 71 53 74.

Arrasate. Esperientziadun emakumea gertu etxeko lanak egiteko. 943 77 06 74.

Esperientziadun neska gertu egun erdiz dendaren batean lan egiteko. 943 76 10 11.

Ile apaintzaile profesionala lan bila dabil. 943 79 53 57 edo 636 41 29 27 (Maider).

Bergara. Emakumea astebukaeretan etxeko lanak egiteko gertu. 943 76 03 75.

Arrasate. Esperientziadun emakumea gertu martitzenetan eta eguenetan, orduka, etxeko lanak edo antzekoak egiteko. 943 77 10 20.

402. ESKAERAK

Bergara. Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko emakumea behar da. 943 76 03 37.

Arrasate. Esperientziadun estetizista behar da produktu naturalekin lan egiteko. 943 79 74 53. Oihana.

Bergara. Neska behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 03 37.

Bergara. Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 03 33.

Arrasate. Tabernaria behar da. 943 79 61 64.

Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da. Asegurua egiten dugu. 656 74 59 85 edo 943 76 03 33.

Aramaio. Sukaldaria, sukaldari laguntzailea, zerbitzaria eta laguntzaile bat behar dira Aramaioko jatetxe batean eguenetik domekara lan egiteko. 945 44 53 85.

Bergara. Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 943 76 38 06. Goizez.

Aretxabaleta. Taberna batean lan egiteko pertsona gaztea behar da. Astegunetan, ordu batzuk arratsaldez, edo asteburuetan. 943 656 72 14 82.

Arrasate. Taberna baten zerbitzeko emakumea behar da. 943 79 25 50.

Debagoiena. Trailer gidari esperientziaduna behar da, gertuko bidaiak egiteko. 609 90 20 99.

Bergara. Emakumea behar da umeak zaintzeko. 943 76 19 27. 19:00etatik aurrera.

Bergara. Taxirako gidaria behar da. 670 60 64 00.

403. BESTELAKOAK

Arrasate. Hirugarren maila duen pertsona Reiki terapia emateko gertu. Edozein gaixotasunerako aproposa. 943 79 45 74.

5/ IRAKASKUNTZA

501. ESKAINTZAK

Arrasate. Eskola partikularrak eta arazo eskolarrak tratatzen dira. 649 22 51 07.

502. ESKAERAK

Matematika eta fisikako eskola partikularrak hartuko nituzke. Ingeniaritza lehenengo maila. 639628763. Ander.

Bergara. LH1eko elektrizitate eskolak hartuko nituzke. 943 76 34 26. Haritz.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Motoa. Egoera onean dagoen 50 zilindroko lurrorotako motoa erosiko nuke. 943 58 50 40 (20:00etatik aurrera).

Volkswagen Transporter salgai. Hornitua. 943 71 50 43. Gauez.

Opel Kadett 1.3 GLS zuria salgai. 139.000 km. Garajean gordeta egon da. 943 16 01 15.

Karabana salgai, egoera onean (aurrealdea eta sukaldea ere baditu). 250.000 pezetan. 945 44 50 15.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Lau hilebeteko cocker beltza eta 13 hilebeteko boxer emea salgai. Pedigridunak dira eta txipa jarrita dute. 696 05 73 46.

Boxer txakurkumea salgai. Oso pedigri onekoa. 626 96 23 90.

703. EMAN

Artzain txakurkumeak opari egiten dira. Oso politak dira. 943 71 53 30.

703. EMAN

Txakurkumeak . Hilabeteko ardi txakurrak ematen dira. 943 79 35 66.

Txakurkumeak. Hil eta erdiko txakurkumeak oparitzen dira. 676 37 96 36.

Txakurkumeak opari. 676 43 01 41.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Logela salgai. Bi ohe, gaumahaia, sinfonierra eta armairua. 943 79 19 53.

Hezetasuna kentzeko tresna eta berogailu elektrikoa erdi-prezioan salgai. 943 76 19 29.

Fitness egiteko makina salgai. 639 33 35 10.

Ezkontzako soinekoa salgai. Victorio & Luchino markakoa. 42 neurrikoa. 943 76 74 19.

Piano berria salgai. 943 76 06 41.

Bizikleta salgai. Errepidean ibiltzekoa (neurria: 55; abiadurak). Egoera onean. 943 79 25 15.

Play Station bolantea salgai, prezio onean. Behin erabilia. 943 77 14 57. Aritz.

Koflach markako mendiko plastikozko botak salgai. 40 zenbakia. 5.000 pta. 943 76 40 87. Esther.

Egongelako besaulkia eta mahaia salgai. 943 76 37 80.

Kiwiak. Baserriko kiwiak salgai. 943 79 97 84.

802. EROSI

Trialsineko [illegible] kleta erosiko nuke. 943 7[illegible] 61. Eduka.

Txanponak. Metal guztietako txanponak eta bankuko billeteak erosten dira. Deituz gero, bila joango naiz. 945 44 50 44.

Bi liburu hauek erosiko nituzke: *Oñatiko historia eta [illegible] bilduma* eta *[illegible] Txingo* (Ediciones Mensajero, 1973). 943 78 30 11. [illegible]

806. GALDU

Arrasate. Luko dendatik [illegible] bitartean eskolatu eta [illegible] bat galdu nuen. 943 79 49 [illegible]

Bergara. Jaunartzeko domina bat galdu nuen [illegible] Santa Marina inguruan. "Miren, 3-v-98" idatzita dauka. 943 76 43 48.

Bergara. Urrezko eskumuturrekoa galdu nuen orain 15 egun. 943 76 22 14.

Arrasate. Makatzenatik Maalara bidean erloju bat galdu nuen abenduaren 18an. Grisa da, kataiduna. 943 79 40 98. Marta (10:00etatik aurrera).

807. AURKITU

Bergara. Eskuko erlojua topatu dut kalean. 943 76 26 09 (egunez), 943 76 35 96 (gauez) edo 666 21 57 72.

808. BESTELAKOAK

Eski- eta snow-oholei argizaria eman eta ertzak zorrozten dizkiet. 669 27 09 88.

9/ HARREMANAK

901. AGURRAK

Pello maitea, ongi etorri mundura. Mer eta Danel maiteok, asko pozten gara. Zorionak. Elkar ikusi arte, gu eta gure seme-alabak, laztan bana. Sharryn, Benjamin eta Ellis.

904. BESTELAKOAK

Urtarriletik aurrera, Arrasatetik irtenda, Gasteizera 08:30ak aldera heldu behar naiz. Norbaitek autoan eramango banindu, gasolina ordaintzen lagunduko nioke. 943 79 39 52. Gauez. Amaia.

Super BM

Oxirondo azokan
Tel.: 943 76 11 12
BERGARA

Gabonetako eskaintzarik onena!

Zorionak eta Urte berri on!

Ardoaren txokoa

Mikel Garaizabal / Sumelierra eta enologoa

Xanpaina eta cava: apardunen sasoia

EDOZEIN SASOITAN EDATEKO EGOKIAK IZAN ARREN, ARDO APARDUNAK GABONETAN EDATEN DIRA GEHIENBAT

Gaur estreinatzen dugun sail honen bitartez, ardoaren kultura aberatsa zuenganatzea da nire helburu eta nahia. Kontuan izan behar da ardoa oso barneratuta dagoela euskaldunon kulturan eta, gainera, ziurtatuta dago, neurrian edanez gero, osasungarria dela.

Oraingoan, apardunei buruz jardungo dugu, sasoi honetan besteetan baino txanpain eta cava gehiago edaten dugu eta.

Apardunen urteko produkzioaren %80 Gabonetan edaten da.

BENITO CANTERO

XANPAINA EDO CAVA, HORI BAI DILEMA

Gabonak dira eta sasoi honetan ardo apardunen kontsumoak gora egiten du. Urteko produkzioaren %80 Gabonetan edaten da. Askotan galdetu diot neure buruari honen zergatiari buruz, hau da, ardo apardun hauek zergatik edaten diren ospakizunetan eta Gabonetan gehienbat. Ezian ditzakegu edan edozein ordu eta egunetan? Zergatik edaten dugu azken platerekin edo postreekin? Datu bat: apardunak edozein motatako janarirekin ondo datozen ardo bakarrenetarikoak dira.

Gauza bat argi laga nahi dut hasieratik: apardun guztiak ez dira xanpainak, eta ezta cavak ere. Gustatuko litzaiguke euskaldunoi Australian egiten den ardo zuri bati, esate baterako, txakolina deitzea? Xanpainarekin berdin gertatzen da.

Xanpaina Frantziako Cahampagne izeneko lurraldeetan egiten den ardo zoragarria da, eta nahiz eta askotan imitazioak egon, inoiz ezin izan da ederragoa egin.

Champagne lurraldea Paristik 145 kilometro iparmendebalerantz dago. Bere lursailetan 35.000 hektarea mahatsondo daude. Champagne 9 azpilurraldetan banatua dago. Lurrralde honek beti izan du garrantzia ardoa egiterakoan. Ardo apardun teknika erabiltzen hasi baino lehen, errege handien ardoa izan zen. Esan izan da, baina ez da frogatu, Don Pierre Perignon abade beneditarrak asmatu zuela xanpaina egiteko teknika, XVII. mendearen bukaeran. Abade horrek hainbat ikerketa egin zituen; teknikari buruz asko aurreratu zuen, baina ardo mota hauek askoz ere lehenago egiten ziren.

Apardun guztiak ez dira xanpainak, ezta cavak ere.

Esan izan da Don Pierre Perignon abadeak asmatu zuela xanpaina egiteko teknika XVII. mendean.

Errioxako eta Euskal Herriko hainbat herrik cava jatorri izendapena dute, gune nagusia Katalunia izan arren.

Bi mende geroago hartu zuen xanpainak, eta oro har, ardo apardunek, gaur egun duen ospea.

Xanpaina hiru mahats barietaterekin egin daiteke: Pinot noir, Pinot meunier eta Chardonnay. Xanpainaren oinarrizko ardoa hainbat nahasketetatik ateratzen da, ez bakarrik mahats barietateak nahastuz. Azpilurralde ezberdinetako ardoak edo urte ezberdinetako ardoak nahastuz ere lortzen da. Xanpainaren helburua ez da beti ardo berdinak ateratzea, baizik eta upategiek kalitate ezberdina izatea.

Prezioari dagokionez, mahats kiloa, gutxi gorabehera, 26 libera (650 pezeta) kostatzen da. Baina, hiru sailkapen egiten dira mahatsaren jatorriaren arabera.

300 herritan batzen da xanpaina egiteko mahatsa. Hauetatik 17 "Grands Crus" dira. Herri hauetan oinarrizko prezioaren %100 ordaintzen da. Beste 41 herri, ostera, "Premiers crus" dira eta hauetan %90-99 arte ordaintzen da. Gainerako herrietan %80-89 arte ordaintzen da. Beraz, lurraldearen arabera aldatu egiten da prezioa.

CAVA: BESTE APARDUN OSPETSU BAT

Xanpainarekin bezala, cava hitza erabiltzeko, cava jatorrizko izendapenaren barruan dauden herrien eta upeltegien barne egon behar da. Jatorrizko izendapen hau 1991n sortu zen. Gune nagusia Katalunia izan arren, Errioxako 18 herritan, Almendralejon, Requenan, Cariñenan eta Euskal Herriko 5 herritan (Moreta, Oion, Biasteri, Biana eta Mendabia) ere egin daiteke cava.

Cavaren mahats barietateak honako hauek dira: zurietan, Macabeo, Xarel.lo, Parellada, Chardonnay eta Malvasia. Beltzetan, Garnacha beltza, Monastrel eta Pinot Noir.

ZELAN EGITEN DA CAVA?

Lehen hartzidura alkoholikoa egin ondoren, legamiak eta azukrea botatzen zaizkio ardoari eta botilan sartzen da, bigarren hartzidura botilan bertan egiteko. Hartzidura honetan, legamek azukrea xurgatuko dute eta alkohola karbono dioxidoa (burbuilak), lurrin eta zapore bereziak bihurtuko ditu. Hartzidura bukatu ondoren, eta bederatzi hilabeteren ondoren, botilak pupitretan jartzen dira. Egunez egun, botilei inklinazio handiagoa emango zaie, legamia hilak botilaren ahoan kokatu eta kentzeko. Egun, teknika hau automatikoki egiten da horma berezi batzuetan.

Legamiak botilaren ahoan kokatu ondoren, deguellea egiten da; horrela, botilaren iturriak kendu eta berarekin batera legamia hilak kentzen ditu. Hurrengo pausoa, kortxoa jarri baino lehen, espedizioko likorra botatzea da. Hemen azukre kopurua botako diogu. Botatzen dugun azukre kopuruaren arabera sailkatuko dugu xanpaina.

Aldaketak kontsumoan: sikuak gora

Gaur egun, kontsumoa aldatu egin da: lehen cava gozoak gehiago edaten ziren, baina orain, kontsumoa apardun sikuetara bideratu da. Hau da, Brut eta Brut Natureetara. Adibide bezala, 1970ean Brut motako cavak %5 kontsumitzen ziren. Gaur egun, ordea, edaten diren caven %40 Brut dira.

Bestalde, modan jarri dira Cremat, Lustros, Erreserba... eta era horretako hitzak. Hitz hauek ez ditu jatorrizko izendapenak onartzen. Legeak bakarrik ezagutzen du Gran Reserva hitza. Eta horrek esan nahi du xanpaina upeltegian bederatzi hilabetez egon beharrean (legeak ezarritako apardun gazteak), 30 hilez egon behar dela.

Merkaturatu eta gero, ardo apardunak lehenbailehen edan behar dira. Gordetzekotan, ezaugarri bereziak galduko lituzke. Eta beste kontu bat: apardun botila bat zabaldu eta gero, botilaren ahoan goilara bat jartzeak, bitsa eta iondarra galdu ez ditzan, ez dauka inolako zentzurik.

Cava motak

Ardoari botatzen zaion azukre kopuruaren arabera, sailkatzen dira cavak.

- **Brut Nature:** 3 gramo litroko azukre baino gutxiago.
- **Extra Brut:** 6 gramo azukreraino.
- **Brut:** 15 gramo azukreraino.
- **Extra Sikua:** 12-20 gramo.
- **Sikua:** 17-35.
- **Erdi Sikua:** 35-50.
- **Gozoa:** 50 baino gehiago.

Eguraldia

Eguzki | Ostertzeak | Lainoak | Euria | Zaparadak | Tximistak | Elurra | Hotza | Behelainoa

ZAPATUA, 23

Zerua estalita egongo da ia egun guztian. Tarteka ostarteak ere izango dira. Tenperatura ez da aldatuko; aldatzekotan ere, gradu batzuk gora egingo du termometroak. Haizeak, berriz, hegoaldetik joko du, emeki.

Nafarroako Erribera: Euria arin.
Errioxa: Egun lainotsua.
Pirinioak: Lainotsu. 1.400 m.tik gora elurra.

DOMEKA, 24

Lainotuta izango dugu zerua, baina ostarteak ere izango dira. Euri txikia egingo du. Tenperaturak gora egingo du. Haizeak gogor joko du hegoaldetik.

Nafarroako Erribera: Egun euritsua.
Errioxa: Euria nagusi.
Pirinioak: 1.400 m.tik gora elurra.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TENPERATURA

8,8º C

ILARGIAREN ALDIAK: ABENDUA

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
11	18	25	4

EGUZKIA: ABENDUAREN 22a

Sortu	Gorde
08:34	17:51

Urtegiak

URKULU
Zertxobait jaitsi egin den arren urtegiaren ur-maila, ez da askorik izan. Joan zen astean %74,8an zegoen; aste honetan, berriz, %74,6an dago.

%74,6

Mezak

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

Astegunetan
08:30, 12:00.
Zapatuetan
08:30, 12:00, 19:30.
Domeka eta jaiegunetan
09:00, 10:00, 12:00 (nagusia), 13:15 (gaztelaniaz, Kriptan), 17:30.

Telefonoak

((112)) SOS DEIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

DYA (Donostia)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Udaltzainak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 79 10 52
Bergara	943 77 91 06
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 76 53 40
Oñati	943 78 23 12
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospitalea	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 79 10 00
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11
Hies Ekimena	943 79 26 99

GARRAIOAK

Euskotrenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hondakindegi Alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	945 76 44 42
Oñati	943 78 36 67
Abere hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazantza elkartea	943 76 25 47
Nekazantza Ganbera	943 76 10 15
Kapinko	943 71 63 23
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
Arrasate / AEO	943 77 12 28
Aretxabal. / Loramendi	943 77 09 70
Bergara / Jardun	943 76 08 19
Eskoriatza / Axtroki	943 71 54 34
Oñati / Laixan	943 71 63 11
Udalak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 79 10 00
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11
Kiroldegiak	
Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 79 64 61
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola	943 76 64 80
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 79 01 05
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53

Zozketak

BONOLOTOA

EGUAZTENA 20	MARTITZENA 19	ASTELEHENA 18	EGUBAKOITZA 15
06 • 10 • 14	01 • 24 • 32	06 • 10 • 14	12 • 16 • 20
24 • 34 • 37	36 • 37 • 49	24 • 34 • 37	21 • 31 • 44
42	26	42	37
47	8	44	7

LOTERIA PRIMITIBOA

DOMEKA 17	ZAPATUA 16	Saritzarra EGUENA 14
02 • 04 • 12	05 • 09 • 14	02 • 10 • 15
15 • 28 • 45	17 • 28 • 47	26 • 27 • 29
48	47	18
4	19	19

ONCE

EGUAZTENA 20	MARTITZENA 19	ASTELEHENA 18	DOMEKA 17	Kupoitzarra EGUBAKOITZA 15
58.818	34.456	70.132	34.425 (032 seriea)	64.708 (188 seriea)

Erakunde hauen laguntzaz

Gipuzkoako Foru Aldundia

Europar Batasuna

Arrasateko Udala
Aramaioko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Leintz Gatzagako Udala
Antzuolako Udala

Autobusak

PESA 902 10 12 10

DONOSTIA-GASTEIZ

BERGARA	ARRASATE	ESKOLA P.	ARETXABALETA	ESKORIATZA
A Z J	A Z J	A Z J	A Z J	A Z J

GASTEIZ-ARRASATE-BERGARA-EIBAR-DONOSTIA

GASTEIZ	ESKORIATZA	ARETXABALETA	ARRASATE	BERGARA
A Z J	A Z J	A Z J	A Z J	A Z J

DONOSTIA-BILBO

DONOSTIA	ANTZUOLA	BERGARA	ELGETA
A Z J	A Z J	A Z J	A Z J

BERGARA-OÑATI

BERGARA	OÑATI
A	A
Z	Z

BILBO-DONOSTIA

BILBO	ELGETA	BERGARA	ANTZUOLA
A Z J	A Z J	A Z J	A Z J

OÑATI-BERGARA

OÑATI	BERGARA
A	A

OÑATI-ARRASATE-BILBO

OÑATI	ARRASATE
A Z J	A Z J

BILBO-ARRASATE-OÑATI

BILBO	ARRASATE	OÑATI
A Z J	A Z J	A Z J

BERGARA-ARRASATE-BILBO

BERGARA	ARRASATE
A Z J	A Z J

BILBO-ARRASATE-BERGARA

BILBO	ARRASATE	BERGARA
A Z J	A Z J	A Z J

BERGARA-OÑATI-ARRASATE-ARETXABALETA-ESKORIATZA

BERGARA	OÑATI	ARRASATE	ARETXABALETA	ESKORIATZA
A Z J	A Z J	A Z J	A Z J	A Z J

ESKORIATZA-ARETXABALETA-ARRASATE-OÑATI-BERGARA-EIBAR

ESKORIATZA	ARETXABALETA	ARRASATE	OÑATI	BERGARA
A Z J	A Z J	A Z J	A Z J	A Z J

BERGARA-ANTZUOLA-IRUÑEA

BERGARA	ANTZUOLA
A Z J	A Z J

IRUÑEA-ANTZUOLA-BERGARA-EIBAR

IRUÑEA	ANTZUOLA	BERGARA
A Z J	A Z J	A Z J

Hitz gurutzatuak

Lino



Ezker eskuma

1/ Begizta. Bat eta bat. 2/ Baztaneko udalerrikoa. Dirudienez; dudarik gabe. 3/ Denboraren ikurra. Garbatu. 4/ Gazezko produktu multzoa.500.Elkar. 5/ (1936) Euskal gudarien batailoia. Oxigenoa. Kontsonantea. 6/ Xaboi. Zenbaki errealen ikurra. Bat. 3,1416. 7/ Zero. Argizaria. Adanen semea. 8/Yen moneta-unitatearen milarena. Toki batetik gorago dagoen beste batera joan. Leetra baten izena. 9/Erresistentziaren ikurra. Ekaitz handia. 10/ ...—ka. Material honekin eginiko baxera, toska, alderantziz. Bost.

Goitik behera

1/ Ilegorria. 2/Indioa. Letra baten izena. Iodoa. Kilogramoa. 3/ ...-bang erloju famatua. Ozpindu. 4/Natura. Euskal alfabatoko hogeitazazpigarren letra. Bokala. 5/ FEru dimentsioetan hirugarren koordenatuaren ikurra. Roentgen. Motozikleta edo bizikleta koadroaren osagaia. 6/Nafarroko herria. Ahoskatu .7/Ahozkoa. Bokala. Zirkulua. 8/ ...-maiko. Hegoaldearen nazioarteko ikurra. Litio alderantziz 9.-Bota. Erabatekoa, osoa. 10/ Izurri- denbora. Abiaduraren ikurra.

Bila-bila 7

Umore giroan

David Peñalver

KERTEN EDERRA

Bi lagun eztabaidan:

- Hi, kalamidade, tontoarro eta kerten bat haiz!

- Zer uste eban ba, heu bakarrik ala?

DISKOTEKARA ABARKETEKIN

Bajoiak Patxi, basarrittik urten eta diskoteka moderno batera sartzeko intenziñuarekiñ. Gaiñian daroiaz 57 zenbakixa daken abarketak. Heldu dok diskotekara eta ateko arduradunak esan dotsa:

-Hi, ona ezin heinke horrekin abarkokin sartu.

Eta Patxik:

- Zer ba? Lokatza haundixa jaok barruan ala?

IGOGAILLUAN

Igogaillu batian bi tipo. Bat txikixa eta zurixa. Bestia, bi metro eta baltza. Txikixa altuan pentsatzen hasten da...

-Baltza,...ule kixkurra,... ezpanak senduak,... adurra darixola!

- Hi, tipejo, igarkizuna badok, erantzuna alua dok, bestela ostixa bat hartu bihar dok.

BIZIXA LABURTU

Lagun artian:

- Hi, medikuek esaten juek ardauak bizixa laburtzen dabela.

-Hori egixa dok, edanbako egunak luze juaten dittuk eta.

Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola

Ibilgailu gehien nork?

Aparkalekurik topatu ezinda haserre ibiltzen gara askotan. Izan ere, gero eta ibilgailu gehiago dago. Automobil, moto, kamioi eta abar kontuan hartua, bi bizilaguneko ibilgailu bat dago ia Deba arroan (Aramaio kontatuta). Baina, aldeak dezenteak dira zenbait herriren artean. Zein ote da, bizilagunena proportzioan, ibilgailu gehien duen herria?

- Oñati?
- Aramaio?
- Arrasate?

Erantzun zuzena: Aramaio. Hiru bizilaguneko bi ibilgailu daude ia.

Soluzioak



Ezker eskuma

1/ Kibizto. Bi. 2/ Aniz. Arauz. 3/ S. Garbatu. 4/ Ke. D. Alkar. 5/ Amaiur. O. R. 6/ Gel. R. I. Pi.7/ 0. Ezko. Set. 8/ Rin. Igo. Te. 9/ R. Tuiubio. 10/ Ika. Azol. V.

Goitik behera

1/ Kaskagorri. 2/ In. Eme. I. K. 3/ Big. Aienta. 4/ Izadi. Z. U. 5/ Z. R. Urkila. 6/ Tabar. Oguz. 7/ Oral. I. Obo. 8/ Aiko. S. Il. 9/ Buta. Peto. 10/ Izurrite. V.

Horoskopoa

Berenize

ARIES
martxoak 21-apirilak 21

Momentu ona da zure bikoteari sentimenduak adierazteko. Ahaztuko ez dituzun uneak pasatuko dituzue elkarrekin. Atsedena hartzeko beharra daukazu.

TAURUS
apirilak 22-maiatzak 21

Atsedena hartu, urte beria pozez beterik hartu beharra daukazu eta. Sarturnok zure zeinua utziko du eta hurrengo urtean une egokia izango da zure ekonomiarentzat.

GEMINI
maiatzak 22-ekainak 21

Urte berrian sartzen garenean aldaketa asko egongo dira zure bizitzan, amodioan, laneko kontuetan, familiarekin eta, batez ere, ikasketetan.

CANCER
ekainak 22-uztailak 22

Zure osasuna oso egoera onean egongo da baita zure lagunekin ere; momentu onean zaude zure etsaiekin adiskidetzeko.

LEO
uztailak 23-abuztuak 22

Urte berriarekin lagun gehiago egiteko aukera izango duzu eta hori izango da edukiko duzun gauzarik politena. Familiarekin dituzun arazoak konpon itzazu. Momentu egokia da bikotea aurkitzeko.

VIRGO
abuztuak 23-irailak 22

Ez zaitez arduratu oraingo egunetan zure etxea garbi edukitzen. Ez da zuri gustatuko litzaizueen bezala egongo eta. Une hauek familiarekin igarotzeko dira.

LIBRA
irailak 23-urriak 22

Astroak zure aldeko daude, batez ere, ekonomia aldetik. Bidaia motz bat egiko aukera asko dituzu, zure bikote edo lagun min batekin.

SCORPIUS
urriak 23-azaroak 22

Hurrengo egunetan, ariketa fisiko piska bat egitea komeniko litzaizuke. Zure osasuna hobetzeko hainbat gauza egiteko aukera daukazu, mendira joan, bizikletan ibili... Zure gorputzak eskertuko dizu.

SAGITTARIUS
azaroak 23-abenduak 21

Hurrengo egunetan zure independentzia alde batera utziko duzu eta daukazun energia guztia zure familia eta lagunei emango diezu. Ahaztuko ez dituzun uneak igaroko dituzu.

CAPRICORNUS
abenduak 22-urtarrilak 20

Eguzkia zure zeinuan sartuko da abenduaren 21ean eta 23an, berriz, Merkurio. Alai egongo zara eta zure lagunaren erdigunea izango zara. Komunikatzeko aukera ugari izango dituzu. Zorionak!

AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 20

Ez utzi alde batera familiarekin dituzun erlazioak. Momentu egokia da bikotearekin uneak igarotzeko. Ez badaukazu, orain, aurkituko duzu. Poltsikotan diru asko edukiko duzu.

PISCIS
otsailak 21-martxoak 20

Azkenaldian egin dituzun lagunak, oso garrantzitsuak dira orain euretaz ahazteko. Ez utzi aukera ihes egiten eta antolatu festa bat. Eman konfiantza daukazun indarrari.

Goiena Telebista

Telebegi

Aukera polita

Egunkaria irakurri, irratia entzun eta telebista ikusi. Bai eta ez, telebista ikusi ezezik, entzun ere egiten baita. Nola jasan, bestela, musika talde baten inguruko notizia ez baditugu notak entzuten? Edo zertan geldi-tzen da errepide eta zirkulazioari buruzko albiste bat autoen zaratarik gabe? Hori, kazetariaren ahotsa ahaztu gabe, noski, hori gabe nekez uler baitaitezke hainbat berri.

Hala ere, egia da telebista, batez ere, ikusi egiten dela eta irudiek pisu ikaragarria dutela audioaren aldean. Tabernan gaudenean, esaterako, denok telebistari begira egoten gara, eta irudiak erakargarriak baldin badira, ikusten jarraitzen dugu, ezer ez entzun arren; eta irudiok, gainera, gogoratu egiten ditugu hurrengo egunean.

Horixe egiten dugu guk, baina telebistak? Harek ere ikusten du, benetan. Audientzia jaunak neurtzen dio ikusmena. Horrela badaki, besteak beste, zenbat lagunek zer eta noiz ikusten duten, eta berak ere gogoratu egiten ditu datuak hurrengo egunetan, hau ere benetan. Baina, telebistak entzun ere egiten du, batez ere ikusi egiten duen arren, guk bezalaxe. Telefonoa eskegi eta ikus-entzuleen proposamenak, kezkak, iritziak edo kexak entzun ditzake. GOITB sortu berria ere gure telefono deiak edo ahoz ahoko komentarioak entzuteko prest egongo da. Beraz, aukera polita daukagu gure iritzia eman eta gure laguntzarekin gustuko telebista egiteko.

OIHANA ELORTZA

Alberto Gorritiberea/'EKILAN' saioko aurkezlea

Kazetari ikasketak ez egin arren, euskal irratigintzako lesatari onenetakoa da Alberto Gorritiberea. Jaiotzez eibartarra da, baina ezkondu zenetik Mutrikun bizi da. GOITBko Ekilan saioko zuzendari eta aurkezlea da.

- Askotan aritu izan zara Debagoiena inguruko gaiak lantzen, baina zerk lotzen zaitu Debagoienera?

Betidanik izan dut gustuko Debagoienean edozer egiteko dagoen jarrera. MCC Debagoienean egotea, adibidez, ez da kasualitate hutsa. Horrez gain, hiru unibertsitate-fakultate... Ekimen garrantzitsuak sortu dira betidanik Debagoienean.

- Irratia izan da zure eskola, baina orain dela hiru urte telebistan ere egon zinen. Zein medio duzu gogokoen?

Bakoitzak bere izaera du, baina irratia biziagoa da eta aukera gehiago ematen ditu. Irratian ia hutsarekin egin dezakegu saioa. Telebistan gauzak lotuago izaten dira. Ekilanen erreportaje politak egiten ditugu, baina noski, irratiak baino lan handiagoa eskatzen du.

- Ondo ezagutzen duzu Debagoiena, baina zergatik erakarri zintuen horrenbeste, Ekilan egiteko, enpresak?

Bidez bide irratsaioa egin nuenean izan nituen kooperatibarekin lehenengo hartu-emanak. Horrez gain, ekitzaileengan berebiziko interesa daukat. Hau kontuan hartuta, garai batean Arrasate eta gaur egun Debagoiena izugarrizko albiste iturri dira. Hemen beti egon dira industriarekin lotutako ekimenak.

- Ekilanen gonbidatu ospetsuak izan dituzu. Bat, gogoratzekotan, zein nabarmenduko zenuke?

MUko errektore Jabier Retegi nabarmenduko nuke. Bost hilabetean itxaron nuen elkarrizketa egin aurretik. Baina, merezi izan zuen.

- Kooperatibismoaren aldekoa zaitugu. Zelan ikusi duzu Goiena proiektua era horretan egituratu izana?

Inongo zalantzarik gabe, gaur egun dauden forma juridiko guztien artean, kooperatibismoak eskaintzen du bideragarritasunik handiena. Beraz, ondo ikusten dut. Hezkuntzan ere Arizmendi dugu, 3.300 ikaslerekin. Kooperatibismoa ondo dabilen seinale.

- Soberan ezagutzen dituzu Debagoieneko herriak, zein duzu gustukoen?

Bakoitzak berea dauka. Bergara kulturalki gustatzen zait, Elgeta ekonomikoki. Oñati ere izugarri gustatzen zait. Arrasaten sekulako festak egiten dira... Herri bakoitzak bere izaera propioa du, eta guztiak ditut gogoko.

- Zer erreportaje egingo zenuke gustura Ekilan saioarako?

Hainbat gai ditut dagoeneko buruan, baina Garaia proiektuak tarte berezi bat merezi duelakoan nago.

AMAGOIA LASAGABASTER

Santamasak / Saio berezia

Egubakoitzean, 21:30ean / Zapatu eta domekan, 13:30ean

Santamasak 2000 saio berezia gaur

Gaur, egubakoitza, 21:30ean, Santamasei buruzko saio berezia eskainiko du GOITBk. Azken albistegiaren ondoren izango da eta Mondragoen egun osoan izandako ekitaldien berri zehatza emango da. Kaleko eta azokako giroa, ganadu eta barazkien lehiketa..., eta beste hainbat kontu. Beraz, badakizu teleikusle, gaur 21:30ean, hemen, GOITBn.

Asteburua GOITBn

Zapatu eta domekan, 13:30ean

Asteburuan, aste osoko saioak ikusgai

Ohi bezala, zapatuan eta domekan aste osoko saioen errepikapena izango duzue ikusgai GOITBn, 13:30etik aurrera. *Xeleberri* albistegi xelebrea, Isabel Guridi gonbidatu duen *Aurrez Aurre* elkarrizketa saioa, *Ekilan* ekonomia-hilabetekaria, *Musikaz Blai* musika saioa, eta nola ez, bezperako *Santamasak 2000* saio berezia ere zuenean ikusgai. Aspertzeko aitzakiarik ez!

Ekilan / Enpresa mundua

Eguenean, 21:30ean / Zapatu eta domekan, 13:30ean

Janari alorreko bailarako hiru enpresa aztergai

Alberto Gorritiberea kazetariak zuzendu eta aurkezten duen *Ekilan* saioak janari alorrean lan egiten duten bailarako hainbat enpresa aztertu ditu azken saioan. Besteak beste, Gatzagako Jakion kooperatiba, Aramaioko Uxarte eta Bergarako Urzelai harategia. Saio aproposa, duda barik, sasoia kontuan hartuta. *Ekilan* saioa hilabetean behin emititzen da eta bailarako jarduera ekonomikoen berri ematea du helburu. Eguenetan eskaintzen da eta zapatu eta domeketan, saioaren errepikapena, 13:30ean.

Kamera aurrean

"Gaur egun Bergaran partidak antolatzea zorrak egitea da. Mugimendu gutxi dago Bergaran"

IÑIGO SALBIDEA / Asegarce-pilotako gerentea.
"ASTEBETE" (2000-15-12)

"Oso esperientzia polita eta erakargarria izan da Miss-Gipuzkoa lehiaketa"

MAIALEN FERNANDEZ DE ARROIABE / Modeloa
"BERRIAK" (2000-18-13)

Barruko kontuak

DATORREN ASTEAN, EMISIORIK EZ

Datorren astean ez da emisiorik egongo GOITBn. Urtero bezala, etenaldi txikitxo bat izango du Goiena Telebistak urte amaiera honetan Gabonetako oporrak direla eta. Beraz, abenduaren 25etik urtarrilaren 2a arte ez da emisiorik izango GOITBn. Ez larritu, ordea, urte berriarekin batera zuekin izango gaituzue-eta. Indarberrituta eta eskaintza berriekin.

URTARRILEAN, SAIO BEREZI UGARI

Gabonetako oporren ostean, urtarrileko lehen egunetan, hainbat saio berri izango dituzue ikusgai: Goikobalu abesbatzaren kontzertua, Kukubiltxo antzerki taldearen emanaldia, Aretxabaletako akordeoi orkestraren kontzertua... Esandakoa, urte berriak hainbat emanaldi berezi ekarriko ditu zuen etxeetara. Milurteko berriari, ongietorri berezia egingo dio GOITBk.

iKER
SUKALDE ERAKUSKETA
Udala plaza, z/g
Tel.: 943 79 00 43
ARRASATE

FAGOR
Banatzaile ofizialak

SUKALDE ALTZARIAK
San Lorentzo industrialdea
Amillaga, 10 behea
Tel.: 943 76 03 30
BERGARA
JAKINA

Opel Corsa berria

DISEINUA ETA PRESTAZIOAK BATEGINIK

OPEL

TALLERES OLA
TAKOLO AUTOAK, S.L.

Olabarrena auzoa z/g
Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47 • BERGARA

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn
Araba etorbidea 3 (Eskatu pabilioia) • Tel.: 943 79 05 86

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea, z/g • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: BERGARA 20570 Barrenkalea, 33 • 132 postakutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: berrigara@topagunea.com
Ordezkaritzak: Arrasate 20500 Otalora Lizentziaduna, 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasatepress@euskalnet.net
Aretxabaleta 20550 Durana, 11 • 151 postakutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxagazeta@euskalnet.net
Publizitatea: Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: publi@goiena.com.
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2000ko abenduaren 22a

Atzeskua

MAIDER OSA

Maialen Fernandez de Arroiabe/Modeloa

Zer dela eta modelo?

— Iñigo Olasagasti, First modelo agentziako zuzendaria, etorri zitzaidan udan, Donostian amarekin nengoela. Modan etorkizuna izan nezakeela esan zidan, eta saiatzea erabaki nuen.

— Miss Gipuzkoa lehiaketan laugarren gelditu izanak loa kentzen dizu?

— Ez. Esperientzia hartzeko aurkeztu nintzen lehiaketara. Hasieratik argi utzi zidaten ile motza izanda, modelo bezala eskarmenturik ez izanda... ez nuela ezer askorik egingo. Baina, zer den ikusteko eta kamera aurrean lotsa kentzeko joan nintzen. Dena dela, laugarren gelditu nintzenez, Miss Euskadira joateko aukera izango dut.



— Zelan ikusten duzu zure burua?

— Ez dizut esango gaizki ikusten dudanik, baina ez naiz beste edozein baino gehiago edo gutxiago sentitzen.

— Perfekzioa neur daiteke?

— Ez. Ez da existitzen.

— Zer egin beharko litzateke munduak 90-60-90 neurriak izan ditzan?

— Bakoitza bere buruarekin gustura egon, eta besteei kalterik ez egin.

— Zer ez du esan behar miss batek lehiaketako elkarrizketan?

— Pentsatzen duena, askotan... Malezia apur bat behar da.

— Zergatik pasatu zenuen gaizki?

— Ikastolan ibiliagatik eta euskalduna izateagatik behar baino gehiago zirikatu nindutelako. Nire pentsamoldea nolakoa zen jakin nahi izan zuten, eta argi erantzun nien.

— Zaletasunak?

— Musika entzutea, abestea, lagunekin irtetea... Hau da, edozein gaztek egiten duena.

— Gorputz ederra izatea boladan dago?

— Baietz uste dut. Baina, ez da bakarrik hedabideen errua, guk ere gure mundua sortzen dugu.

— Noraino iristeko prest?

— Pozik nagoen artean segituko dut. Ez nuke edozein preziotan lanik egingo.

— Aurkeztuko zenuke telebista saio bat?

— Bai. Hedabideekin lotutako zerbait ikastea gustatuko litzaidake. Dena dela, ez dakit gai izango nintzatekeen. Modelo izateak ez dakar berarekin aurkezle ona izatea.

— Zein da zuretzat modelorik erakargarriena?

— Ez dut idolorik, baina Ines Sastre asko gustatzen zait.

— Zer eskatu diozu Olentzerori?

— Orain arte bezain ondo segitzea, eta egiten dudana egiten dudala, zoriontsu izatea.

"Esperientzia hartzeko aurkeztu nintzen miss lehiaketara"

"Pozik nagoen artean segituko dut modelo. Ez nuke edozein preziotan lanik egingo"

"Miss lehiaketako elkarrizketan, askotan, ezin da esan pentsatzen duzuna"

► *Arrasatearra / 17 urte / Miss Gipuzkoan, laugarrena*

AIPAGARRI

MIGUEL GONZALEZ BASTIDA

Musikari bergararrak omenaldia jasoko du zapatuan, Gabonetako kontzertuan, Bergarako Pilotalekuan. Besteak beste, Bergarako Udalaren, autore eta editoreen elkartearen, abesbatzen, musika taldeen eta organisten elkarteen omenaldia jasoko du. Urteetan Bergarako Udal Musika Bandako eta Orfeoiko zuzendari izandakoak 80 urte bete ditu aurtengo irailean.

PEDRO BELATEGI

Makina erdi automatiko bat diseinatu du etxetresna elektrikoak egiteko erabiltzen den altzairuari plastikoa kentzeko, eta Lan Osasun eta Segurtasun Agentzia Europarrak saria eman dio. Fagor Elektratresnak enpresako egitasmo honez gain, Europar Batasuneko beste 14 enpresaren lanak saritu dituzte.